
Zertan dira Aralar Iparraldeko tokiko hedabideak? Egungo egoera eta etorkizuneko erronkak

Egilea: Aroa Cia Martiarena
Tutorea: Paula Kasares

Eskerrik asko, zinez, bidean hauspotu nauzuen
senide, lagun, ikaskide zein lankideei. Berezi
eskerrak elkarriketarako etxeko ateak zabaltu
dizkidazuenei.

Herri aldizkari zein irratiek ekarpen handia egiten diote euskarari eta garrantzi handia dute euskal hiztun komunitatean. Aralar Iparraldeko toki hedabideak abiapuntu hartuta, eskualdeko komunikabideen egoera aztertu da lan honetan: nola lan egiten duten, zein finantzazio bide dituzten, sektorearen eraldaketa nola bizi duten eta etorkizuna nola irudikatzen duten, besteak beste. Metodologia datu ofizialen bilketan eta toki hedabideen arduradunekin egindako elkarriketa sakonetan oinarritu da. Aralar Iparraldeko toki hedabideak zirkuluaren erdigunean jarrita, egoeraren eta etorkizunaren inguruko zertzelada batzuk aurkituko ditu irakurleak sakontze-egitasmo honen azken zatian.

Taulen aurkibidea	1
Diagrama eta grafiken aurkibidea	1
1. Atarikoa	2
2. Ingurumari teorikoa	3
2.1. Erabileraren eta ezagutzaren sorgin-gurpila	3
2.1.2. Bizindar etnolinguistikoa.	7
2.2. Komunitatea eta hedabideak	11
2.3. Teknologia berrien iraultza	13
2.4. Tokiko hedabideen egitura eta funtzionamendua	16
3. Ingurumari orokorra	18
3.1. Euskarazko hedabideen historia	18
3.2. Lege-egoera	21
3.2.1. Eremu euskalduna.	24
3.2.2. Eremu mistoa.	27
3.2.3. Eremu ez-euskalduna.	27
3.2.4. Hedabideen inguruko araubidea.	27
3.3. Euskara Nafarroan, egoera soziolinguistikoa	29
3.3.1. Ezagutza.	29
3.3.2. Erabilera.	33
3.4. Aralarko Iparraldea, jendartea eta euskara	35
3.4.1. Ezagutza	36
3.4.2. Erabilera	37
3.5. Aralarko Iparraldea, tokiko hedabideak	37
3.5.1. Irratiak.	37
3.5.2. Aldizkariak.	38
3.5.3. Telebistak.	39
4. Metodologia eta emaitzak	40
4.1. Analisi kuantitatiboa	41
4.1.1. Kontsumo ohiturak.	42
4.1.2. Tokiko hedabideen kontsumoa.	47
4.2. Analisi kualitatiboa	48
4.2.1. Hedabidea.	49
4.2.2. Edukiak.	52
4.2.3. Komunikazio bide berriak.	55
4.2.4. Etorkizuna.	56
5. Ondorio eta hausnarketak	58
6. Bibliografia	63

Taulen aurkibidea

<i>Taula 1.</i> Aurreko eguneko telebista ikusle kopuruak Nafarroan eta Mendialdean, katearen arabera eta milakoetan (2017)	43
<i>Taula 2.</i> Pertsonak, telebista-programetako lehentasunen arabera, Nafarroan (2007-2008)	44
<i>Taula 3.</i> Aurreko eguneko irrati entzule kopuruak Nafarroan eta Mendialdean, katearen arabera eta milakoetan (2007-2008)	46
<i>Taula 4.</i> Pertsonak, irrati-programetako lehentasunen arabera, Nafarroan eta Mendialdean, portzentajeetan	47

Diagrama eta grafiken aurkibidea

<i>Diagrama 1.</i> Talde soziolingusitikoak	6
<i>Diagrama 2.</i> Bizitasun etnolinguistikoren faktore objektiboak	8
<i>Grafikoa 1.</i> Hedabideen penetrazioa Nafarroan	13
<i>Grafikoa 2.</i> Audientzia orokorraren bilakaera (penetrazioa,%)	14
<i>Grafikoa 3.</i> Erabiltzaileak azken hilabetean, gailuaren arabera (%)	15
<i>Grafikoa 4.</i> Hizkuntza-gaitasuna. Nafarroa, 2016 (%)	29
<i>Grafikoa 5.</i> Hizkuntza-gaitasuna eremuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)	30
<i>Grafikoa 6.</i> Euskaldunen bilakaera. Nafarroa, 1991-2016	30
<i>Grafikoa 7.</i> Euskaldunak erraztasunaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)	31
<i>Grafikoa 8.</i> Euskaldunen erraztasuna, eremuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)	32
<i>Grafikoa 9.</i> Euskaldunen erraztasunaren bilakaera. Nafarroa, 1991-2016 (%)	33
<i>Grafikoa 10.</i> Euskararen erabileraren tipologia. Nafarroa, 2016 (%)	33
<i>Grafikoa 11.</i> Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Nafarroa, 1991-2016 (%)	34
<i>Grafikoa 12.</i> Euskararen erabileraren bilakaera. Nafarroa, 1991-2016 (%)	35
<i>Grafikoa 13.</i> Euskararen ezagutza. Aralarko Iparraldea, 2001 (%)	36
<i>Grafikoa 14.</i> Hedabideen kontsumo orokorra Nafarroan, milakoetan (2017)	42
<i>Grafikoa 15.</i> Prentsa irakurle kopururak Nafarroan, egunkariaren arabera eta milakoetan (2017)	45
<i>Grafikoa 16.</i> Prentsa irakurle kopuruak Mendialdean, egunkariaren arabera eta milakoetan (2017)	45

1. Atarikoa

“Tribuari komeni zaio sarea irudikatzea amaraunaren antzera: erdigune bat, zirkuluak haren inguruan, eta hari luzeak erdigunetik lau haizetara. Amaraunaren erdigunean legoke bakoitzaren hurbilenekoa, interes nagusikoa; kanporanzko zirkuluetan, gero eta urrunago, interes gutxiagoko gaiak; eta hari luzeen bidez bermatuko litzateke mundu zabalarekiko harremana. Egin diezaiozun bakoitzak bere buruari honako galdera: “Zerk du eragin handiagoa nire bizitzan, atariko auzokide baten auto-istripuak, ala lurrikarak eragindako milaka kilometrotara gertatu den milaka indonesiarren heriotzak? Erantzun honen arabera informazioa mailakatuko duen amarauna behar du gure tribuak” (Arantzabal, 2008: 110 or.).

Arantzabalek planteatutako galderari erantzunez, urrunean gertatutako ezbeharrei garrantzia kentzeko inolako asmorik gabe, eragin handiagoa du nire bizitzan eremu hurbilean jazotako gertakariak; eragin baino, interes esanen nukeen arren. Gertutasunetik eta hurbiltasunean informatzeko behar horri heldu diot HIZNET Hizkuntza Plangintza graduondokoari dagokion sakontze-egitasmo honetan. Izan ere, lan honen amaraunaren erdigunea Aralar Iparraldeko toki hedabideak izanen dira eta horiek osatuko dute ikerlanaren unibertsoa.

Azken hamarkadetan komunikazioaren sektorea iraultza betean murgildurik dago. Alde batetik, krisi ekonomikoak eragindako galerak direla eta; bestetik, teknologia berrien garapenaren eta zabalkundearen eraginez. Sakelakoen jendarteratzeak internetarako konexioa erraztu eta normalizatu du; edonon, edonoiz sar gaitezke sarean. Zalantzarik gabe, honek guztiak eragin handia izan du komunikabideen esparruan eta negozioaren eredua birpentsatzeko momentua da. Komunikabide talde handiekin lehiatzea ez da erraza, ordea; are gutxiago testuinguru nahasi horretan. Toki hedabideek funtzio garrantzitsua betetzen dute hizkuntza gutxitua duten hiztun komunitateetan eta euskara ez da salbuespena. Beraz, Aralarko Iparraldeko toki hedabideak mugarri hartuta, honakoak dira ikerketa honetan planteatzen ditudan galderak:

- Zertan dira Aralar Iparraldeko toki hedabideak?
- Zein baliabide eta estrategia dituzte teknologia berriek sortutako kazetaritzaren iraultzari aurre egiteko?
- Zer paper jokatu dute euskarazko tokiko hedabideek euskal-hiztun komunitatearen etorkizunean?

Horien erantzunetatik eta ateratako ondorioetatik abiatuta, etorkizun zehaztugabearen inguruko zenbait argigune ematen saiatuko naiz. Horretarako, alde batetik, eskualdeko

egungo euskarazko komunikabideen kontsumoa aztertuko dut, tokikoen pisua identifikatzen eta kontsumo ohituren aldaketa azaltzen lagunduko duelakoan.

Ikerketaren bigarren fasean, analisi kualitatiboari helduko diot. Aralar Iparraldeko toki hedabideen arduradunekin egindako elkarriketetatik abiatuta, horien bilakaera eta egungo egoera definituko dut, etorkizuneko erronkei aurre egiteko ahulezia eta indarguneak identifikatze aldera.

2. Ingurumari teorikoa

2.1. Erabileraren eta ezagutzaren sorgin-gurpila

Hizkuntza gutxituaren ezagutzaren eta erabileraren arteko harremana aztertzerakoan, ezinbesteko erreferentzia iruditzen zait José María Sánchez Carrión *Txepetxen* (1987) teoria, horietan eragiten duten motibazioak argitu baitzituen. *Un futuro para nuestro pasado* liburuan hizkuntzaren jabekuntza-prozesua baldintzatzen duten oinarritzko hiru faktore identifikatu zituen: motibazioa, ezagutza eta erabilera.

Hiru faktoreak elkarri lotuta daudela eta elkarren mendeko direla defendatu zuen, “sus relaciones se asemejan a la de los vasos comunicantes” (Sánchez Carrión, 1987: 35or.).

Era berean, bi motatako faktoreak bereizi zituen: batetik, espontaneoak edo naturalak; bestetik, induzituak edo kulturalak. Ezagutza naturala umeen jabekuntza prozesuarekin lotu zuen, hots, ikasketa-prozesu primarioa egin dutenekin. Ezagutza kulturala, aldiz, hizkuntza helduaroan ikasi dutenek lortuko dute, hau da, ibilbide sekundarioa egin dutenek. Beraz, bi ikasketa prozesu desberdindu zituen:

- Ibilbide primarioa (A), haurrek egiten dutena da eta ibilbidea honakoa da: erabilera => ezagutza => motibazioa.

Lehenik, umea etxean modu naturalean ikasitako hizkuntza hitz egiten hasiko da; ondoren, hizkuntzaren arauak ezagutuko ditu; eta, azkenik, hizkuntzarekiko motibazio naturala garatuko du. Mota honetako prozesuari A ibilbidea deitu zion *Txepetxek*.

- Ibilbide sekundarioa (B), helduena, faktore berak biltzen ditu, baina ibilbidea kontrako norabidean egiten da: motibazioa => ezagutza => erabilera.

Hizkuntza nerabezarotik aurrera ikasi dutenak sartzen dira multzo honetan. Ikaskuntza prozesuari ekin ahal izateko, beharrezkoa izango da alde aurreko motibazio induzitua, hein handi batean, kontzientea. Motibazio horrek nahikotasun

maila lortzen duenean hasiko da hizkuntza ikasten eta gaitasun-maila egokia lortzean hasiko da hitz egiten; hizkuntza erabiltzen, alegia. Betiere, prozesuaren fase ezberdinetan motibazio maila egokia mantentzen badu.

Hala, hizkuntza-jabekuntzaren prozesuak faktore berek osatzen dute kasu batean zein bestean, baina elkarren kontrako norabidean burutua.

Autorearen esanetan, faktore batetik bestera pasatzeko, ezinbestekoa izanen da hiztunak nahikotasun maila erdiestea. Haurraren kasuan, nahikotasun-maila lortu ezean, nekez lortuko du motibazio maila nahikoa. Autoreak honela azaldu zuen mekanismoaren funtzionamendua:

“Si un niño no alcanza un determinado nivel de uso efectivo del idioma correspondiente, no llega a tener un nivel suficiente de corrección fonética, léxica y gramatical del mismo. Y, correlativamente, si no puede conseguir cierto nivel de corrección lingüística, equiparable al del hablante medio de su edad y grado de instrucción (de modo que se sienta a gusto y relajado cuando lo habla) es difícil que se llene hasta el nivel de suficiencia su compartimento motivacional.” (Sánchez Carrión, 1987: 39 or.)

Nerabe eta helduen kasuan, ordea, alderantziz gertatu ohi da: motibazioak hizkuntza ikastera bultzatuko du subjektua, baina hizkuntzaren gramatika eta lexikoa ongi menperatzera ez bada heltzen, ez du erabilera espontaneora jauzia egingen, baliabideak falta dituelako, eta hasierako motibazioa galtzeko arriskua izanen du.

“De modo semejante la motivación adquirida o racional del adulto (o adolescente en su caso) debe alcanzar un nivel suficiente de interiorización para que se canalice como impulso de aprendizaje hacia la lengua en cuestión. Y, a su vez, la captación de la estructura y sistema de la lengua debe lograr unos mínimos para que pueda desarrollarse un uso efectivo del idioma. Sin alcanzar ese nivel mínimo de suficiencia en el uso, no se logra la nuclearización del sistema lingüístico: la automatización de los resortes básicos que facilitan la producción y alimentan el estímulo del aprendizaje: lo que ocasiona un vacío de uso cuyo efecto de anquilosamiento o fractura en la producción lingüística provoca una turbación y pérdida de confianza en el aprendiz que pueden conducirlo a retirarle a la lengua la motivación inicial.” (Sánchez Carrión, 1987: 39-40 or.)

Nahikotasun maila lortzeko, A ibilbidea egiten dutenen kasuan, hizkuntzak funtzio komunikatibo guztiak bete ditzakeela ikusi behar du haurrak. B ibilbidea egiten duten nerabe eta helduen kasuan, aldiz, ez du interes edo motibazio kontrajarririk izan behar.

Autoreak dionez, hiztun osoa izateko bi ikaste prozesuak osatu behar ditu hiztunak; hau da, ibilbidea bi norabideetan egiten dutenak, AB eta BA, dira hiztun osoak, faktore guztiak lotuta baitaude eta elkarri eragiten baitiote: “La suma de los dos recorridos forma un circuito. Sólo el circuito representa un aprendizaje lingüístico completo (**AB / BA**)” (Sánchez Carrión, 1987: 42).

“Cada recorrido representa un aprendizaje lingüístico incompleto: natural, en el primer caso; cultural, en el segundo. La suma de los dos recorridos forma un circuito. El circuito representa un aprendizaje lingüístico completo. Un aprendizaje lingüístico se puede completar partiendo del recorrido primario (circuito AB) o partiendo del recorrido secundario (circuito BA) sobre la base de sumar al recorrido inicial el recorrido inverso complementario.” (Sánchez Carrión, 1987: 69 or.)

Hizkuntza gutxituaren ikaste prozesu horretan erabileraren garrantzia azpimarratzen du. Ikasten ari den hizkuntza ez erabiltzeak ezagutza eta komunikazio gaitasunetan atzerapena nozitzeko arriskua dakarrela ohartarazten du eta, inplizituki, harreman sare euskaldunaren beharra onartzen.

Autorearen esanetan, ibilbide goiztiar edo primarioa oso dinamikoa da, konpartimentu batetik bestera erraztasun handiz jauzi egiten duelako. Izan ere, hizkuntzaren ikasketa sekundarioa egin dutenek jatorrizko hizkuntzaren erresistentzia gainditu behar izaten dute; prozesu naturala egiten dutenen, kasuan, aldiz, konpartimentu horiek *hutsik* leudeke eta, hortaz, ez legoke erresistentziarik.

“El proceso es de un gran dinamismo. Y sus diferencias con el aprendizaje secundario no son sólo de dirección sino de rapidez. No es que el niño aprenda con gran facilidad, pero sí que el transvase se produce con gran facilidad en el de un compartimento a otro. Aparte de razones más complejas que no nos compete pormenorizar aquí, hay una razón muy elemental para que esto sea así: en el aprendizaje tardío el líquido (por llamarlo de algún modo, en realidad lo que se aprende) avanza a costa de vencer la resistencia que ofrece el líquido previo (la lengua nativa). En el aprendizaje primario el líquido se desplaza sin encontrar resistencia alguna, progresa, por así decirlo, en el vacío” (Sánchez Carrión, 1987: 54 or.).

José María Sánchez Carrión “Txepetx”-en teoriak kritika ugari jaso ditu. Izan ere, hondar hamarkadetan egoera soziolinguistikoa nabarmen aldatu da euskaldunen taldearen baitan, eta hizkuntza-jabekuntza prozesua ulertzeko eskemak garai berrira egokitu beharko lirakeela diote zenbait adituk. Sánchez Carriónen hizkuntza-jabekuntzaren teoria azaldu zuenenetik, 1980eko hamarkadan, gaurdaino, euskal hiztunen tipologia zeharo aldatu da. Belaunaldi oso bat dugu dagoeneko, haurtzaroan euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi

Diagrama 1. Talde soziolinguistikoak.




Diagrama n.º 12
Los grupos sociolingüísticos

ITURRIA: Sánchez Carrión, J.M. (1987: 99 orr.) *Un futuro para nuestro pasado* [Diagrama]

duena, hezkuntza D ereduaren bitartez euskaratu diren haur erdaldunak, alegia. Ikuspuntu honetatik, zilegi da pentsatzea hizkuntza-jabekuntza prozesua ulertzeko eskemak garai berrira egokitzeko beharra dagoela. Hala ere, hausnarketa honetan sakontzeak luze joko luke eta lan honen ikergai zein helburuak alboratzea suposatuko luke eta interesa duenak, besteak beste, Pello Jauregiren lana azter dezake.

2.1.1. Hiztun komunitatearen trinkotasuna.

José María Sánchez Carrión “Txepetx”-en teorian hizkuntza komunitatea hiztuna, hizkuntza eta gizartea lotzen dituen unitate soziala da (Sánchez Carrión, 1992: 131 or.) eta bost talde soziolinguistikoez osatuta dago, atomoa irudikatuz, zirkulu zentrokideen moduan antolatuta (ibid., 203). Zirkuluaren erdigunean jatorrizko hiztun kulturizatuak (AB taldea) leudeke; segidan, heldu eta gazte bertakotuak (BA taldea); jarraian, jatorrizko hiztun primarioak (A taldea); hurrena, egituraren azken mailan, hizkuntza ikasten ari direnak (B taldea); eta, azkenik, kanpoan, hizkuntza horren hiztunak ez direnak (Ø taldea).

AB eta BA taldeek gune sinbolikoa osatzen dute, hau da, hizkuntzaren garapen osoa gauzatu eta hizkuntza horretan pentsatzen dutenek. Hauxe da autoreak gune sinbolikoari eman zion definizioa:

“Definimos el espacio simbólico como el núcleo de hablantes que dotan a su lengua de un desarrollo completo. O, correlativamente, el núcleo de hablantes que tienen un desarrollo lingüístico completo en esa lengua.” (Sánchez Carrión, 1987: 64 or.)

Sarasuak ere, *Hiztunpolisa* liburuan, euskal hiztun komunitatearen mailakatzea edo barne-egitura parametro bertsuetan oinarritzen du:

“Hiztun komunitatearen erdigunean kokatzen dira “hiztun osoak”, funtzio informal eta formal desberdinak euskaraz egoki egiteko gai direnak. Horiek baino erdigunerago, euskaraz bizi eta euskaraz kontsumitzeko hautua egin dutenak. Eta horien artean biziberritzearen gidaritzan are erdirago, euskararen garapen prozesuan aktiboki engaiatuta dauden milakak. Egitura honetan ertzeragoko zirkuluetan daude hizkuntzaren ezagutza eta erabilera-maila desberdineko pertsonak, hezkuntza prozesuaren bidez soilik ukitzen dutenak, hartzaile pasiboak, ez-hiztun positiboak eta beste hainbat multzo.” (Sarasua, 2013: 320-321 or.)


Natibo kulturizatuek zein heldu natibizatuek hizkuntz-komunitatearen gune-sinbolikoa osatzen dute, hizkuntza edozein erregistro edo egoeretan erabiltzeko gai dira; hau da, hiztun osoak dira. Hiztun hauen proportzioa da hizkuntzaren bizitasuna gehien baldintzatzen duen faktorea, eta ez hiztun kopuru absolutuaren portzentajea (Sánchez Carrión, 1987: 65 or.). Hortaz, zeharka bada ere, harreman sare euskaldunaren garrantzia nabarmentzen du.

“La vitalidad de una lengua no depende tanto del número absoluto de hablantes cuanto de la proporción que estos hiztun osoak (hablantes completos) representan en el conjunto social.” (Sánchez Carrión, 1987: 64 or.)

2.1.2. Bizindar etnolinguistikoa.

Hizkuntza gutxituaren bizindarrak arituko bagara, ezinbestekoa da Gilesen, Bourishen eta Taylorren teoria aipatzea. Mikel Zalbidek eta Xabier Erizek HIZNET graduondorako prestatutako 1.3. *Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko* dokumentuan jaso da jarraian azaldutako teoria. Izan ere, jatorrizko formulazioa H. Giles, Y. Bourhis eta D. M. Taylor ikertzaileek plazaratu zuten “Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations” (1977) artikuluan (Zalbide, M., Erize, X., 2018: 29-30 or.) . Hizkuntza giza eta gizarte prozesuetan duen garrantzia abiapuntu hartuta, autoreek bi tresna nagusi proposatu zituzten arazoa aztertzeko: batetik, bizitasunaren faktore objektiboen eredua eta, bestetik, prozesu psikosozialak. Hau da, Henry Tajfelen (1974) ereduetan oinarritutako hizkuntzaren eta talde etnikoen arteko harremanak aztertzeko proposamen teorikoa (Zalbide, M., Erize, X., 2018: 29-30 or.).

Diagrama 2. Bizitasun etnolinguistikoaren faktore objektiboak



Iturria: Zalbide, M.; Erize, X. (2018: 30 orr.) 1.3. Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko [Diagrama]

Gilesek, Bourhisek eta Tylorrek hiru multzotan bildu zituzten bizitasunaren faktore objektiboak: estatusa, demografia eta babes instituzionala. Estatusa hizkuntzaren prestigioari lotuta dago, eta faktore ekonomiko, sozial, soziohistoriko eta linguistikoak barne hartzen ditu. Demografiaren faktoreak bere baitan hartzen ditu hiztun kopurua, haien banaketa lurraldean zehar eta, orohar, taldearen joera demografikoak. Babes instituzionalak, aldiz, hizkuntzak erakundeetan duen pisuarekin du zerikusia: gobernuan, ekonomian, komunikabideetan, hezkuntzan etab. Gilesek eta lankideek, honako eskeman bildu zituzten faktore horiek guztiak:

Arazoaren alderdi psikosozialak aztertze aldera, Zalbidek eta Erizek jaso zuten, Gilesek eta lankideek Henry Tajfel (1974) psikologoaren teoria hartu zuten oinarri, Gilesen beraren aurreko lanekin batera (Hizkuntzaren egokitzapenaren edo *speech accommodation* teoria). Taldeen arteko harremanak azaltzeko, Tajfelek kategorizazio soziala, gizarte identitatea, konparazio soziala, bereizketa psikologikoa, alternatiba kognitiboak eta talde estrategiak erabili zituen (Zalbide, M., Erize, X., 2018: 31 or.).

Kontzeptu hauen artean kate edo sekuentzia moduko bat osatzen da. Tajfelen zein Gilesen eta lankideek diotenez, pertsonak subjektu aktiboak dira euren burua zein mundua definitzen. Hala izan dadin, kategorizazio soziala funtsezkoa da, hots, pertsonak (norbera barne) multzo edo kategoriatan sailkatzea: gizonezkoak/emakumezkoak, euskaldunak/

erdaldunak, etab. Identitate sozialak bi alderdi ditu: batetik, pertsona zein taldetako kide den eta, bestetik, kategoria horrek duen balioa. Hala eta guztiz ere, identitateari esanahia eta balioa eman ahal izateko beste taldeekiko konparazioaz baliatzea ezinbestekoa da. Ondorioz, taldeak euren artean bereizten dira eta sozialki onartuak diren ezaugarriak bereziki areagotzen dira. Hala, konparazioaren eta bereizketaren emaitza ona bada, identitate positiboa lortuko da. Bestela ere gerta daiteke: taldekideak ohartzeara egoera txarrean daudela gainerako taldeekin alderatuta. Halakoetan, oso garrantzitsua da alternatiba kognitiboak aurkitzea egoera aldatzeko. Kate edo sekuentzia honetan, azkenik, talde estrategiak daude; egoera aldatzeko nahiz mantentzeko taldeek erabiltzen dituzten estrategiak, hain zuzen.

Hortaz, talde-identitatea ongi baloratua den neurrian mantenduko du norbanakoak talde-identitatea. Bestalde, kidesun hori modu negatiboan hautematen badu, beste talde batzuetako partaide izaten saiatuko da. Beraz, gizarte-taldearen arteko konparazioak ematen dio esanahia identitate sozialari, norbanakoak besteekiko egiten duen alderaketaren alderdi positibo zein negatiboek, alegia (Tajfel, 1984: 75). Bestela esanda, identitate sozialaren eta norbanakoak talde horren kide izatearen kontzientziaren arteko lotura estua da. Horra Tajfelek berak ematen duen definizioa:

“entenderemos por identidad social aquella parte del autoconcepto de un individuo que deriva del conocimiento de su pertenencia a un grupo (o grupos) social junto con el significado valorativo y emocional asociado a dicha pertenencia.” (Tajfel, 1984: 292 or.)

Taldearen arteko konparazioan norbanakoak bere taldea azpiratua dela antzematen duenean eta gutxitasun horrek eragindako kalteak jasaten dituenean, hizkuntza gutxituaren aldeko mugimendua taldearen autoestimu kolektiboa handitzeko gakoa dela defendatzen du Tajfelek:

“Los movimientos dirigidos al restablecimiento de un status igual o alto para el idioma propio de una minoría étnica van acompañados a menudo de fuerte carga emocional. El idioma nacional se convierte fácilmente en uno de los principales símbolos de diferenciación con dignidad, de una autodefinición positiva.” (Tajfel, 1984: 379 or.)

Hala ere, Giles, Bourhis eta Taylorrek bizitasunaren alderdi subjektiboak ere garrantzitsuak zirela iritzi zioten. Hau da, bizitasun etnolinguistikoaren faktore objektiboak eta bizitasun subjektiboa (taldeko kideek euren hizkuntza komunitateari buruzko iritzia) neurtuz gero, emaitzak bat etorriko al lirarteke? Galdera horri erantzuna eman nahian, R. Bourhisek, H. Gilesek eta D. Rosenthalek galdetegi bat prestatu zuten bizitasun subjektiboa neurtzeko eta “Notes on the construction of ‘subjective vitality questionnaire’ for ethnolinguistic groups”

izeneko artikuluan plazaratu zuten 1981ean. Autoreen ustez, oso baliagarria litzateke datu objektiboak zein subjektiboak bateratzea talde minoritario batek bizirauteko dituen aukerak balioesteko (Zalbide, M., Erize, X., 2018: 32 or.).

Bestalde, Martinez de Lunak eta Usarralde (2004) bizindar etnolinguistikoaren teoria euskal hiztun komunitatean aplika zitekeela frogatu nahi izan zuten, alegia, “ea bizindar etnolinguistikoaren baitan biltzen diren faktoreek herri bateko euskararen erabilera azaltzeko gaitasunik duten ala ez” (Martinez de Luna eta Usarralde, 2004: 8). Horretarako, Euskal Herriko zenbait herritan ikerketa abiatu eta, labur esanda, erdarak euskarak baino askoz indar handiagoa duela baieztatu zuten. Ondorio nagusia bizindar etnolinguistikoaren eta hizkuntza erabileraren arteko harremana zuzena eta argia zela izan zen: “Euskal hizkuntza komunitatearen bizindar etnolinguistikoa nolakoa, euskararen erabilera halakoa” (Martinez de Luna eta Usarralde, 2004: 9 or.). Hala ere, baieztapen horrek ñabardurak dituela azpimarratu zuten:

“Bizindar etnolinguistikoaren eta euskararen erabileraren arteko erlazioa ez da herri guztietan intentsitate berekoa. Bizindar etnolinguistikoa baxua denean, euskararen erabilerarekiko duen distantzia handiagoa da; aldiz, bizindar etnolinguistikoa altua denean, euskararen erabilerarekiko distantzia estuagoa da” (Martinez de Luna eta Usarralde, 2004: 11-12 or.).

Azken finean, hizkuntz-komunitateko zenbat kidek darabilen hizkuntza gutxitua baldintzatzen du bizindarra. Salcesek *Euskaldunak komunikabideen aurrean: iritzien, ohituren eta jarreraren azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa* Doktore Tesian jaso zuenez, Xabier Iasik, euskal komunitatearen konposizioaren historiaren bitartez, horrela azaldu zuen zein den euskararen bizindarra:

“XIX. mendearen hondarrean Euskal Herrian zeuden euskaldunak XXI. mende hasieran baino gutxiago ziren, gaurko kopuruaren erdia baino zerbait gehiago, hain zuzen ere. Alabaina, XIX. mendean euskaldunak gehiengo ziren, biztanleriaren %50a baino gehiagoan, euren artean asko, gehienak seguru aski, euskaldun elebakarrak ziren; garai hartako gizartean euskara erabiltzea ezinbestekoa zen, beraz. Gaur egun, oster, euskaldunok gutxiengo gara, biztanleriaren heren bat ozta-ozta, era guztiok, salbuespenik salbuespen, elebidunak edo eleaniztunak gara, euskaldun elebakarren multzoa erabat desagertu da; pertsonaren bizimodu arruntean euskara erabiltzea, bada, ez da ezinbestekoa. Ehun urteren buruan euskararen erabilera, maila baten edo bestean, ezinbestekoa izatetik aukerazkoa izatera igaro da; hizkuntza-erabilera gertaera segurua izatetik zorizko gertaera izatera igaro da.” (Salces, G., 2016: 83 or.)

2.2. Komunitatea eta hedabideak

Gune sinbolikoaren ideari esparru-funtzioen teoria gehituz, hizkuntzaren iraupen eta galtze prozesuen azalpena egin zuen Txepetxek. Esparru-funtzioen ikuspegitik, hizkuntzaren ordezkapena kanpoko hizkuntza bertako hitzunen barneratuz eta haien hizkuntzaren funtzioz funtzioakako ordezkapena ematen denean gertatzen da. Finean, hizkuntzaren ordezkapena eginkizunen ordezkapena da Txepetxen sisteman, eta iraupena, noski, eginkizunei eustea:

“Desde la teoría de los espacios el problema de la sustitución y de la normalización lingüística consiste en analizar cómo puede un idioma pasar de ser inasequible, a ser asequible, de ser extraño a ser reconocido, de ser reconocido a ser aprendido, de ser aprendido a ser interiorizado, y de ser distinto a mí, a ser parte de mí. Este proceso tiene lugar a través de una sucesiva ocupación de los espacios categoriales, mediante un proceso de sustitución de funciones. Funciones desempeñadas en la lengua A van siendo sustituidas por funciones desempeñadas por la lengua B”. (Sánchez Carrión, 1981: 131. or.)

Hizkuntzaren ordezkapenaren eta biziberritzearen gakoa gune sinbolikoan ikusten du Sánchez Carrión. Ordezkapena hizkuntza komunitatearen kanpo aldean hasi eta gunea hizkuntza berriaz betetzen denean gertatzen da. Hizkuntzaren sustapen eta indartze prozesua, aldiz, hizkuntza gune sinbolikotik kanpo alderako norabidean zabaltzen denean gertatzen da.

Hedabideak munduko gertaerak jazotzeko zein barne-munduaren berri emateko leihoa dira eta oinarritzak da hedabide indartsuak izatea; izan ere, haiek “aukerak ematen dizkiete hiztunei beren buruaren errepresentazio publiko hori kontrolatzeko, komunitate bereko beste kideen ideiak, ikuspegiak eta arazoak ezagutzeko, eta Guaren ideia komunitate horren baitan txertatzeko” (Garabide Elkarte, 2010: 12 or.).

Euskal eta euskarazko hedabideek berebiziko garrantzia izan dute azken hamarkadetan euskara biziberritzeko ahaleginean. Sarasua (2013) alor nagusien artean kokatzen du hedabideena, corpusa, hezkuntza, kultur sorkuntza eta familia transmisioarekin batera. Hala izaten jarraituko duela ere uste du:

“Hedabideek funtzioak dituzte hizkuntzaren estandartzean eta hizkeren nagusitzean. Bai eta hizkuntza komunitatearen autoirudian eta autokonfiantzan ere. Europako hizkuntza komunitate txikien bizi-indar maila eta beren hedabideen gaitasuna nahiko bat datoz.” (Sarasua, 2013: 311 or.)

Testuinguru honetan, azpimarratzeko modukoa da gaur egun bizi dugun mundu globalizatuaren aroan, masa-kultura homogeneousatzailearen garaian, komunikabideek sortutako markoak errealitatearen interpretazioan eragin handia duela, bereziki gazteengan. XIX. mendetik aurrera, hedabideak nortasun kolektiboak sortu eta indartzeko prozesuan eragilerik pisutsuenak izan dira. Hala azaldu zuen Amezagak, “Taldea nortasunak eta komunikabideak” artikuluan (2009):

“Batetik, komunikabideak taldea definitzen duten ezaugarri objektiboen hedatzaileak dira; bestetik, komunikabideek eremu publikoaren euskarria ematen dute; azkenik, komunikabideak ikur hedatzaile garrantzitsuenak dira.” (Amezaga, 2009: 46 or.)

Komunikabideen tresna hizkuntza den heinean, hedabideek zein hizkuntzak nortasunaren eraikuntzan jotzen duten papera hertsiki lotuta daudela defendatzen du. Bestalde, hizkuntza ezinbesteko tresna da izatekidetasunaren beste ezaugarriak transmititzeko: taldearen ikurrak hedatzen ditu eta hiztun-komunitateko kideen arteko harremanak egituratzen ditu (Amezaga, 2009: 49 or.).

Gure herria ez da, ordea, talde-identitatean komunikabideek duten garrantziaz arduratu den bakarra. Salcesek bere doktore tesian (2016) jaso zuen Calhounek komunitateen eraikuntzan bereziki telebista izandako garrantzia nabarmentzen du, arrazoi ezberdinak direla eta:

“Contemporary communications media play an especially important role in constituting these imagined communities. Not only do broadcast media and more specialized channels such as computer networks facilitate mechanisms of coordination of action through indirect relationships, at the same time, some of these media -television specially- simulate directness of relationship. Television offers visual and aural information at the same time, something closer to the physical embodiment of experiential learning.” (Calhoun, 1991: 109-110 or.)

Hala, zeharkako harremanak bideratzeko baliabidea da telebista; ez hori bakarrik, zuzeneko harremana izatearen fikzioa eragiten du eta, ondorioz, identifikazio sozialerako tresna boteretsua da telebista:

“Television and other mass media offer extraordinary potential for furthering the creation of imagined communities, both as objects of identification and as object of antagonism.” (Calhoun, 1991: 111 or.)

Hortaz, telebista talde baten partaidetza definitzeko erreferente kultural eta moralen sistema identifikatzeko tresna da eta, batera, partaidetza hori kanpotik definitzen duten ezaugarriak hurbiltzen dizkigu.


Adostasun zabala dago, hortaz, komunikabideek hizkuntzaren garapenerako berebiziko garrantzia dutela baieztatzean. Baina, era berean, balazta ere izan daiteke, Garabide elkarteak *Hedabideak* txostenean azaldu duenez. Tresna garrantzitsuak dira hizkuntzari egonkortasuna eta uniformetasuna emateko eta irakaskuntzak bezainbesteko eragina izan dezakete “hizkuntzaren berreskurapenerako, eta hizkuntza sendotzeko eta trinkotzeko” (Garabide Elkarte, 2010: 12 or.). Txostenak ezin hobeki laburtzen du hedabideek gurea bezalako hiztun komunitateetan duten garrantzia:

“Hedabideak, beraz, hizkuntza garatzeko gune apartak dira, onerako eta txarrerako, hizkuntzaren finkapenerako zein narriadurarako. Esan daiteke hedabideak direla hizkuntzaren maisu nagusiak, eta baldin eta egia bada kultura garrantzitsuagoa dela herri moderno baten jarraipena ziurtatzeko edozein armada baino, egia da, halaber, hizkuntza ezegonkor baten gainean ezin dela kultura egonkorrik eraiki. Hizkuntzari egonkortasun hori ematearen ardura nagusienetakoa hedabideek daukate.” (Garabide Elkarte, 2010: 12 or.)

2.3. Teknologia berrien iraultza

Azken hamarkadetan, internet konexioen garapenak eta, bereziki, sakelakoen zabalkundeak, komunikazioaren esparruan hautsak harrotu ditu. Teknologiari esker, informazioa edonork sortu eta zabaltzeko eta kontsumitzeko ohiturak errotik aldatzen ari dira, komunikazioaren negozio eredua hankaz gora jarritz. Horri guztiari krisi ekonomikoa gehitu behar zaio. Salmenten beherako joera geldiezin dirudi eta publizitateak ere, euskarri aldatzeaz gain, behera egin du.

Grafikoa 1. Hedabideen penetrazioa Nafarroa (%)
(Lanketa propioa)




ITURRIA: AIMC (2018: 19 orr.). Marco General de los Medios en España

Kontsumitzeko ohiturak erabat aldatzen ari dira. Gero eta gehiago, gaurkotasuneko informazioa batez ere interneten bidez kontsumitzen da, hedabideen sareko kanal ezberdinen zein sare sozialen bidez. Asociación para la Investigación de Medios de Comunicación (AIMC) elkarteak argitaratutako *Marco General de los Medios en España 2018* txostenak 2017 urteko egoera biltzen du; hona hedabideen penetrazioari dagozkien datuak, Nafarroan:

Ukaezina da teknologia berriek espazio itzela hartu dutela egunerokoan, inguruan begirada bat eman besterik ez dago. Oraindik ere gehien erabiltzen den euskarria telebista da, baina azken urteetan sareak gorakada handia izan du. Paperaren gainbehera, hala ere, krisi ekonomikoa baino lehen hasi zen, 2006-2008 urteetan. Hau da, krisi ekonomikoak eragin handia izan du egunkarien bilakaeran, baina iraultza digitalarena are handiagoa izan dela ere baieztatu daiteke. Aipatutako txostenean AIMC elkarteak bildutako datuek ez dute zalantzarako tarterik uzten, lan horretan jasoak dira grafiko hau egiteko datuak:

Grafikoa 2. Audientzia orokorraren bilakaera (penetrazioa, %)

(Lanketa propioa)




ITURRIA: AIMC (2018: 19 orr.). *Marco General de los Medios en España*

Interneti dagokionez, biztanleriaren % 82k erabili du azken hilabeteetan eta % 77,7k azken 24 orduetan (Nafarroan, azken hilabeteetan konektatu direnen kopurua % 82,4 da). Horien artean, % 57,7k gaurkotasun-informazioa irakurri du sarean azken hilean eta % 42,3k azken egunean. Sare sozialei dagokienez, azken hilean % 67,7k erabili ditu sare sozialak eta % 61,4k azken egunean. Bestalde, % 33,1ek telesaioak edota pelikulak ikusteko erabili du sarea azken hilabeteetan eta % 14,6k aurreko egunean.

Datuek argi erakusten dute kontsumo-ohituren aldaketa: batetik, biztanleriaren erdiak, gutxi gorabehera, informazioa eta gaurkotasun-berriak sarean jasotzen ditu; bestetik, gero eta gehiago dira entretenimendua ere sarean bilatzen dutenak.

Azken urteotan, gainera, ordenagailua baino gehiago, mugikorrak eta tabletak nagusitzen ari dira internet erabiltzeko euskarri gisa. 2014an, mugikorrak sarean nabigatzeko lehen aukera gisa gailendu ziren Espainiako Estatuan.

Aipatzekoa da, hala ere, *smart* telebista bidezko konexioak izan duen gorakada. 2012an mota honetako erabiltzaile kopurua % 0,4koa zen, baina 2015etik aurrera izandako igoaldiak % 26,5ean kokatu du azken datu-bilketan. Agidanez, datozen urteetan ere gora egiten jarraituko du.



ITURRIA: AIMC (2018: 5 orr.) Audiencia de internet

Tokikom elkarteak 2012 gogoeta jardunaldien emaitzak jaso zituen *Euskal hedabideen etxea, tokikoen ikuspegitik* 2013ko dokumentuan. Txostenak Mario Tascon kazetariaren esaldi hau jasotzen du: “Kazetariak uste genuen jendeak entzun egin nahi zuela. Eta ez, jendeak hitz egin nahi du” (Tokikom, 2013: 9 or.). Eta horretarako aukera da, hain zuzen ere, teknologiak baliatu duena. Teknologiak hedabide handien monopolioa hautsi du, eta jendarteak erronka jaso du. Herritarra aktibatu egin da, saretu; ondorioz, edukiak eta ikusmoldeak ugariagoak eta anitzagoak dira.

Kontsumitzaileak aukeratzen du zer, non eta noiz kontsumitu eta informazioa eskuragarri du uneoro, edonon. Hori da mende honetako komunikazioaren iraultzaren muina eta, argi denez, komunikazio eredu tradizionalaren eraldaketa beharrezkoa da. Eztabaida zabala da

eta iritziak askotarikoak. Horien artean bada pentsatzen duena bilakaera horrek zenbait euskarri desagerraraziko dituela; papera, esaterako. Beste batzuek, ordea, euskarri guztien aldeko apustua egiten dute, bakoitza bere espazioan, bere ezaugarriekin eta elkarren osagarri.

“Komunikazioaren eskema tradizionala hankaz gora ari da erortzen. Trantsizioan gaude, iragana eta etorkizuna borrokan, aldaketak ziztu bizian. Norabidearen zantzuak antzematen badira ere, erritmoetan dago eztabaida, eta helmugan. Hau da, nora iritsiko garen eta noiz. Egia da irratia ez zuela egunkaria hondoratu, ez eta telebistak irratia hil. Eta pentsatzekoa da internetek ez dituela aurreko euskarri guztiak desagerraraziko. Baina dagoeneko ezer ez da berdina, eta aldaketaren abiada gero eta azkarragoa da. Seguruenik, aldaketa bera, aldaketa etengabea da etorkizuna.” (Tokikom, 2013: 9 or.)

Hala ere, iraultza eta krisi testuinguru honetan, badira euskal hedabideentzat osagai baliagarriak ere. Egindako bidea malkartsua da eta horrek larritasunean eskarmentua eman die. Hedabide indartsuenek ere ez dakite estrategia egokia zein den eta baliabide ekonomikoek dagoeneko ez dute hainbesteko pisua, beraz, ez dute txikiekiko abantailarik (edo ez handirik, bederen). Euskararen inguruko batasunak eta lankidetzak aukera berri eta indartsuak ematen dizkio euskal kazetaritzari.

Arrasate Press aldizkariak auto-edizioaren abantaila antzeman zuen eta aurrea hartzen jakin zuen, hurbileko eremuan tokiko hedabideen loraldiari bidea zabalduz (Ikus lan honen 3.1. puntua). Egungo egoeran ere antizipazioak berebiziko garrantzia izanen du eta lehena izateak euskararentzat espazio berriak geureganatzea ekar lezake.

Ikusi dugunez, euskal kazetaritza eta, bereziki, tokikoa euskaltzaletasunari eta ekintzailetzari oso lotua dago. Hizkuntza ez dago salbu, baina biziberritzen ari da eta euskararen inguruko lankidetzak indar handia sortzeko ahalmen du. Kontsumitzailea aktibatzen ari da, informazio propioa sortzen du eta hori partekatzeko aukera paregabea eskaintzen diote hedabide txikiek. Batez ere, toki komunikabideen indargunea da euskararen ikuspegitik betetzen duen funtzioa eta hartzaileen aldetik duen onespina (Tokikom, 2013: 8 or.).

2.4. Tokiko hedabideen egitura eta funtzionamendua

Toki hedabideen sorrera, bilakaera eta biziraupena euskal hiztun komunitateari eta haren bizindarrari hertsiki lotua dago. “Euskal hedabideak jaio dira euskararen aldeko jarreretatik, berezkoa dute hiztun komunitatearekiko lotura” (Tokikom, 2013: 5 or.).

Are gehiago, jarrera horietatik elikatu izan dira eta elikatzen dira egun ere, herritarren ekimenetik sortu ziren eta euskal komunitatearen babesak mantentzen ditu bizirik. Bestela

esanda, euskal hedabideen sorreran euskara dago, euskaltzaletasuna, hizkuntzaren aldeko borondatea eta konpromisoa (Tokikom, 2013: 5 or.).

Sorreran, herria izan dute esparru toki hedabide gehienek, hori baita tokikotasunaren oinarritzko unitatea. Askok, gainera, herritik irten gabe iraun dute. Denboran aurrera, ordea, zenbait zailtasunekin topo egiten dute: teknologiak eragindako aldaketetara moldatzea, produktua sortu eta kudeaketa eraginkorra uztartzea eta sektorearekin zein erakundeekin harremanak lantzea, besteak beste.

Oztopo horiek gainditzeko bateratze prozesuak egin dira hainbat tokitan, herrikoa izateari utzi gabe indarrak batuz. Bide horretan eskualdea izan da esparru egokia. Ahalegin horretan Goiena bihurtu da erreferentzia, kasu arrakastatsua izanagatik. Goienaren ibilbidean, bada datu bat herriko esparrua gainditzean sortzen diren beldurrak uxatzen laguntzen duena: herri mailako atxikimendua eramana zutela galerarik gabe eskualdera, 2012an Aztiker enpresak egin zuen neurketan datuek argi utzi zutenez (Tokikom, 2013: 31 or.).

Salbuespenak ere badira, ordea; izan ere, hainbat lekutan egoera ez da aproposa eskualdeko eredua bultzatzeko. Araban, esaterako, ez dago 50.000 biztanlera inguratzen den eskualderik Gasteiztik kanpo, eta Nafarroan eskualde batzuk distantzia handiak hartzen dituzte bere baitan, baina biztanle gutxi.

Batzuen eta besteen artean aldeak badaude ere, oro har, hiru dira toki hedabideen finantzazio iturriak: herritarrak, administrazioak eta merkatua (publizitatea).

Herritarren babes ekonomikoa molde ezberdinetan gauzatzen da euskarazko hedabideetan. Ezagunena harpidetza sistema da, baina badira beste bide batzuk: bazkidetza deskontu edo abantaila klubetan (berria lagunaren figura, konparazio baterako), partaidetza auzolanetan, laguntza edukietan, etab. Bigarrenik, publizitatea diru sarrera tradizionala izan da komunikabideetan, baina zenbait tokikok, arrazoi ezberdinak direla medio, ez dute bide hori jorratzen. Finantzazio iturririk baliotsuena, hortaz, administrazioaren eskutik datorrena da; hau da, diru-laguntza bidez jasotzen dute finantzazioaren portzentajerik handiena. Sistema honek dependentzia handia sortzen du erakunde publikoekiko, krisi garaian diru-laguntzak murriztuz gero, arazo latzak sor ditzake eta.

Legediak berariaz aitortzen du informazioa jasotzeko herritarren eskubidea, eta horretan oinarritu dira herri administrazioak hedabide publikoak sortzeko eta bultzatzeko. Euskararen kasuan, hizkuntza gutxitua izanik, are garrantzitsuagoa izan da administrazioen papera toki hedabideen sorreran nola iraupenean. Izan ere, merkatu terminotan, hizkuntza hegemonikoak (erdarak) merkatu osoa du eta besteak (euskarak) zati bat besterik ez. Negozio ikuspegitik, ez dago lehia berdintasunik, hizkuntza bat edo bestea aukeratzeak zeharo baldintzatzen baitu hedabidearen lehiakortasuna. Ekimen pribatuak desoreka horri

aurre egiteko zailtasuna erabatekoa da eta nekez garatuko litzateke hedabiderik euskaraz. Beraz, finantzazio publikoa ezinbestekoa da euskarazko toki hedabideek iraun dezaten.

Euskal komunikabideen inguru hurbilean krisi ekonomikoak uzurtu egin ditu aurrekontu publikoak eta zuzen-zuzenean, hedabideei bideratutako diru-laguntzak. Zenbait urtetan, Nafarroan, desagertu ere egin dira. Krisi orokorraren testuinguruan, euskal hedabideontzat ere egoera oso larria da, eta dagoeneko batzuk geratu dira bidean. Xaloez telebista Baztanen eta Baleike irratia dira honen adibide. Azkenekoak, emisio orduak eta egunak murriztu ditu eta, bizirauteko, egun astean bi orduz emititzen du. Baina, bere txarrean, egoerak baditu osagai baliagarriak ere. Batetik, euskarazko toki hedabideak ekonomikoki larri ibili izan dira beti, badute eskarmentua, eta horrek aurrerantzean ere irauteko gaitasuna ematen die. Bestetik, hedabide indartsuenek ere ez dute argiago, negozioaren birsortze prozesu horretan, bizirauteko aukerak non dauden; beraz, ez dute txikiekiko abantailarik (edo ez handirik, behintzat). Euskarak berak lankidetzarako joera oso eskuzabala eragiten du eta horrek aukera guztiz berriak eta indartsuak ematen dizkio euskal kazetaritzari, oro har, eta tokikoari bereziki (Tokikom, 2013: 5 or.).

3. Ingurumari orokorra

Atalaren lehenengo zatian ikerketaren testuinguru orokorra deskribatuko dut. Euskal kazetaritzaren sorkuntzaren inguruko zenbait zertzelada eman nahi izan ditut, ikerketaren unibertsoa bere testuinguruan kokatze aldera. Jarraian, Nafarroako lege egoera azaltzeari ekin diot; informazioa euskaraz jasotzeko herritarrek duten eskubidea, hedabideek zerbitzu publikoa ematen duten heinean jasotzen duten laguntza eta, oro har, ikerketaren marko legala zehazte aldera. Ondoren, 2016ko Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak oinarri hartuta, euskarak azken 25 urteotan Nafarroan izan duen bilakaera azaldu dut. Beti ere, testuinguru orokorrari erreparatuta.

Atal honen bigarren zatian, berriz, testuinguru hurbilari heldu diot. Eskualdeko datu soziolinguistikoetatik abiatuta, euskarak Aralar Iparraldean izan duen bilakaera argitzen saiatu naiz. Datuen eskasia eta homogeneotasun/estandarizazio faltak irudi argia izatea eta udalerrirarteko konparazioak egitea oztopatzen badu ere, dagoenari eutsi eta ahalik eta egoeraren azterketa argiena egiten saiatu naiz. Eskualdeko jendartearen inguruko informazioa zabaltze aldera, demografiari tarte txiki bat eskaini nahi izan diot. Azkenik, egun eskualdean dauden toki hedabideak deskribatuko ditut, ikerketaren unibertsoa definituz.

3.1. Euskarazko hedabideen historia

Lehendik ere bestelako argitalpen eta saiakerak izan baziren ere, esan genezake euskal kazetaritzaren ingurua XX. mendearen lehen bi hamarkadetan joan zela osatzen. Agerkari

batzuk egungo kazetaritzaren ereduaren arabera antolatzen hasi ziren, informazio-sareak sortzen hasi ziren, eta aldizkari erlijioso eta nekazaritzari buruzkoek gain, mota guztietako informazioa euskara hutsean zabaltzen zituzten hedabideak sortu ziren. 20ko eta 30eko hamarkadan, euskara hutsezko aldizkari garrantzitsuak argitaratu ziren, euskarazko irratsaioak aineratu ziren, eta, lehen aldiz, egunkari baten beharraz hitz egiten hasi ziren kazetariak (Garabide Elkartea, 2010: 27 or.). Huraxe izan zen euskal kulturaren lehen goraldia, gaur euskaigintza deitzen dugunaren sorrera, hain zuzen ere. Garai hartakoa da *Argia* astekaria, egun, euskal prentsaren historian komunikabide garrantzitsuenetakoa.

Gerra Zibilarekin batera, gehienak isildu egin ziren eta, hura galduta, kazetari gehienek erbestera jo behar izan zuten. 50eko hamarkadan heldu zioten berriz ere jardunari, baina gerraosteak diktadura bortitza ekarri zuen eta euskal agerkarien bidea ez zen erraza izan.

Francisco Franco diktadorea hil eta demokraziarako bidea zabaltzearekin batera, hedabide berriak sortzeko mugimendu handiak izan ziren Euskal Herrian. Ahalik eta jende gehienengana iristeko asmoz, prentsa elebidunaren aldeko apustua garbia izan zen eta euskal hedabide titulua jarri zioten euren buruari, nagusiki erdara erabili arren. Horrek gogoeta interesgarria eta eztabaida bizia eragin zuen. “*Laburbilduz, garai hartako eztabaidak ondokoak erakutsi zituen:*

- *Euskal hedabideak euskaraz dihardutenak dira.*
- *Euskararen aldizkako agerpenak adabakiak baino ez dira, eta euskal komunitateak euskara hutsezko eredu autozentratuak behar ditu, barrura begira lan egiten dutenak.*
- *Prentsa elebidunean, euskararen presentzia normaltasun ezaren adierazle garbia da, hala kopuruari dagokionez, nola edukiari dagokionez. Beharbada, bigarrena ez da kezagarriena, euskaraz emandako informazio ia gehiena euskal gaiei buruzkoa izanik (gatazka politikoa, euskara edo euskal kultura), euskara ghetto batean irudika baitezake. Halaber, garrantzi handiko gaietatik ia erabat baztertuta geratu ohi da euskara prentsa elebidunean. Eguneko notizia handiak gaztelaniaz edo frantsesez ematen dira beti.*
- *Denborarekin, euskararen presentziak ez du gora egiten prentsa elebidunean, alderantziz baizik. Hainbat kazetatan, batzuetan diru laguntzen mesedetan, euskaraz argitaratzen hasi ziren gehigarriak edo lanak desagertu egin ziren denborarekin.” (Garabide Elkartea, 2010: 34 or.)*

80ko hamarkadaren bukaeran, euskarazko egunkariaren sorreraren erronkak indarra hartu zuen eta 1990eko ekainean aurkeztu zen *Egunkariaren* 0 zenbakia. Abenduaren 6an hasi zuen ibilaldia *Egunkariak*, 2003ko otsailaren 20an indarrez itxi zuten arte.

Euskal prentsari dagokionez, laurogeita hamarreko hamarkadan bi ekimen nagusi izan ziren. Batetik, aipatu *Egunkariaren* sorrera; bestetik, tokiko komunikabideen gorakada. *Arrasate Press* izan zen euskaraz idatzitako lehendabiziko herri aldizkaria, bertan eta bertakoendako pentsatutako informazio iturri berri eta bizia. Asmo nagusia euskara sustatzea zen eta ohiko aldizkarietan lekurik ez zuten gaiak jorratu zituzten. Ildo beretik, 1990ean, *Arrasate Telebista* jaio zen. *Arrasate Pressen* ereduari jarraiki, emeki-emeki ekimena beste eskualde askotara zabaldu zen.

Egin dezagun atzera 70eko hamarkadara. Euskaraz ekoiztutako hedabideak bultzatzeko beharra puri-purian zegoen eta tokiko hedabideen aldeko aldarrikapena zabaltzen ari zen. Giro horretan sortu ziren lehen euskal irratia: *Radio Popular de Bilbao*, *Radio Popular de San Sebastián*, eta *Loiola Irratia*, esaterako. Baina mugimendurik sendo eta iraunkorrena Ipar Euskal Herrian izan zen 80ko hamarkadaren hasieran, irratia libreen aldeko haizearekin batera.

Garai bertsuan baina beste baldintza batzuetan, *Euskadi Irratia* sortu zen. Hego Euskal Herriko baldintzak bestelakoak ziren, noski, baina sorrera modua ere oso desberdina izan zen, irratia EITB egitasmo instituzionalaren baitan jaio baitzen.

Nafarroari dagokionez, 1988an sortutako *Euskalerria Irratia* izan zen euskaraz emititzen lehena. Urte luzez lizentziarik gabe emititu behar izan zuen eta ez dira gutxi izan bidean izandako zailtasunak. Oztopoak oztopo, bazkide, kolaboratzaile eta euskaltzaleen laguntzaz proiektuak aurrera egin zuen eta 2015ean Nafarroako Gobenuak lizentzia eman zion.

Ez da Nafarroako euskal irratia bakarra, ordea. Elkarte modura 2007an elkartu baziren ere, 80ko eta 90eko hamarkadetan sortu ziren toki irratia gehienak (*Xorroxin*, *Aralar*, *Beleixe*, *Karrape*, *Irati*...).

Telebistan, 60ko hamarkadan agertu zen lehen aldiz euskara, 1965 eta 1966an Espainiako Telebistak emandako esku-pilota finaletan, hain zuzen ere. Handik urte gutxira, baita Frantzian ere, hainbat saio finko ikusi ahal izan ziren euskaraz. Egoera bere horretan mantendu zen, 1982an Eusko Jaurlaritzak Euskal Telebista sortu zuen arte. Esan genezake, beraz, euskal telebistagintza orduan hasi zela.

Hasierako urte haietan kateak euskara eta erdara tartekatu zituen, baina 1986an erakunde publikoak bigarren katea (ETB2) sortu zuen eta hizkuntzaren araberako banaketa egin. Lehen katea, euskara hutsean; bigarrena, erdaraz. Bigarren katearen sorkuntzak eta

hizkuntzaren araberrako banaketa horrek kritika ugari eragin zuen euskalgintzan eta, oro har, euskaltzaleen artean. Izan ere, askok uste zuten kate berriak kalte egingen ziola euskararen gizarte-erabilerari. Urteek aurrera egin ahala, ikusi dugu eredu hori finkatu eta sendotu egin dela, programazio eta egitura ezberdina duela kate bakoitzak, alegia.

Nafarroan, hondar hamarkadetan herri telebistak sortzeko zenbait saiakera egin dira. 1997an *Ttipi Ttapa* telebista emititzen hasi zen eta Bortziriak, Bertizana eta Malerreka eskualdeetako 18 udalerritan emititzera heldu zen. Garai hartakoa da *Xaloe* telebista ere. Baina 2004ko abenduaren 3ko 2268/2004 Errege Dekretuak indarrean sartzeak, aurrera egiteko aukerarik gabe utzi zituen. Hala ere, 2015az geroztik, *Xaloe* telebistak Iruñerrian emititzen du.

3.2. Lege-egoera

Lege-estatusa hizkuntzari esleitzen zaion legezko aitortza da; ohikoena ofizialtasuna izaten da. Horren ondorioz, hizkuntza horrek lege balioa izanen du ofizialtasuna esleitu zaion lurraldean eta eraginkortasun juridiko osoz erabili ahal izango da. Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren ekainaren 26ko 82/1986 Epaiak ezarri zituen, neurri batean, ofizialtasunaren mugak: *...es oficial una lengua, independientemente de su realidad y peso como fenómeno social, cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados, con plena validez y efectos jurídicos.*

Hala ere, ofizialtasunaren muina modulatzeko errealitate soziolinguistikoa hartu izan da, berdintasun juridikoa desitxuratu ezin duen arren. Hau da, formalki berdintasun juridikoa legoke bi hizkuntza ofizialen artean, baina materialki ez.

Halaber, kontuan izan behar dugu euskararen ofizialtasuna lurralde eremu zehatz batean aplikatzen dela. Euskal hizkuntza-komunitatea bost/zazpi erregimen juridikoren mende dago: Ipar Euskal Herria; Euskal Autonomia Erkidegoa; Nafarroan, legeak ezarritako eremu euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna; Kantabrian Turtzioz eta Gaztela Leonen, Trebiñu. Hemen Euskarak Nafarroan duen legezko-estatusa eta legedia aztertuko dut.

1978ko Konstituzioa da estatuko lege gorena, 3. artikuluan ezartzen du hizkuntzaren ofizialtasuna:

1. Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espai- nol guztiek jakin behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute.
2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan beraien Estatutoei dagozkien eran.

3. Espainiako hizkuntza mota ezberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da¹.

Soziolinguistika Eskuliburuak (Zarraga, A., *et al*: 2010) jasotzen duenez, Espainiako Estatuan aplikatzen den sistemak lau ezaugarri nagusi ditu, kontuan izatea merezi dutenak:

- **Gaztelania ezagutzeko derrigortasuna:** Espainiako Konstituzioak 3. artikuluan ezarria. Beraz, ez dago gaztelaniaren ez-jakintasuna argudiatzerik.
- **Berezko hizkuntzaren izaera:** zenbait autonomia erkidegotan tokiko hizkuntzak berezko izaera hartzen du. Izaera hori tokiko hizkuntzaren erabilera lehenesteko neurriak justifikatzeko ezaugarri bihur daiteke.
- **Hizkuntzarengatiko diskriminazio-eza:** Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko hainbat itunek propio jasotzen badute ere, Espainiako Konstituzioak saihestu egin zuen hizkuntzarengatiko diskriminazioa jasotzea.
- **Ofizialtasuna:** herritarren eskubideak aitortzeko sistema. Espainiako Estatuak berezko hizkuntza desberdina duten lurraldeetan hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren sistemak arautu zituen.

Aitzitik aipatu bezala, Nafarroan legediak hiru eremu bereizten ditu, hortaz, ofizialtasun estatusa era ezberdinean aplikatzen da horietako bakoitzean.

13/1982 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoak, 9. artikulua ezartzen duenez gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala eta euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan. Halaber, eskualde horiek zehaztu eta euskararen erabilera ofiziala arautuko duen foru-lege bat izanen dela aurreikusi zuen, hain zuzen ere, 18/1996 Foru Legea, euskarari buruzkoa. Hala dio Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikulua:

1. Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala.
2. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan.

¹ Estatuko Aldizkari Ofizialaren Agentzia: <https://www.boe.es/legislacion/documentos/ConstitucionEUSKERA.pdf>

Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta, Estatuko legeria orokorra abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du².

Esan bezala, 18/1986 Foru Legeak arautu zuen euskararen erabilera ofiziala bere 2. artikuluan. Gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak izendatu zituen, eta hortaz, hiritar guztiei aitortzen zaie ezagutzeko zein erabiltzeko eskubidea. Hala ere, 3.2. artikuluan gogorarazi egiten du Nafarroako hizkuntza ofiziala gaztelania dela, eta euskararen ofizialtasuna eremu batean besterik ez dela aitortzen:

1. Gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
2. Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala. Euskara ere ofiziala da Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeteari buruzko Lege Organikoko 9. artikuluan eta foru lege honetan aurrez ikusitako eran.

5. artikuluan hiru eremu horiek bereizi zituen, lege ondorioetarako kontuan hartuko dena: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna. Hartara, ofizialtasunak eragiten dituen betebeharrak juridiko guztiak legeak ezarritako eremu euskaldunean besterik ez dira aplikatzen.

2017ko ekainaren 22an Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 5.1.b) artikulua aldatu zuen. Aldaketa horren bidez, eremu mistoa beste 44 udalerriara hedatu zen, guztira 98 herri biltzeraino, eta Atetz eremu euskaldunera igaro zen. Horrezaz gain, Noain-Elortzibarko udalerria ere eremu mistoan “automatikoki” sartzea aurreikusten zen, “baldin eta toki korporazio horretako udalbatzak gehiago osoz hartzen badu erabakia”. Halaxe idatzia dago, gaur gaurkoz, 5. artikulua:

1. Foru lege honen ondorioetarako, Nafarroak ondoko eremu hauek ditu:
 - a. Eremu euskalduna, ondoko udalerriek osatua: Abaurregaina/Abaurrea Alta, Abaurrepea/Abaurrea Baja, Altsasu/Alsasua, Anue, Araitz, Arakil, Arantza, Arano, Arbizu, Areso, Aria, Aribere, Arruazu, Auritz/Burguete, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Bera, Bertizarana, Betelu, Donamaria, Doneztebe/Santesteban, Elgorriaga, Eratsun, Ergoiena, Erroibar/Valle de Erro, Esteribar, Etxalar, Etxarri-Aranatz, Ezkurra, Garaioa, Garalda, Goizueta, Hiriberri/Villanueva de Aezkoa, Igantzi, Imotz, Irañeta, Irurtzun, Ituren, Iturmendi,

² Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeteari buruzko Lege Organikoa: https://www.navarra.es/home_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/IndicesPorDepartamentos/Desarrollo+rural+Medio+Ambiente+y+Administracion+Local/Desarrollo+Rural/Competencias+en+materia+agraria/LO_1982_13.htm

Labaien, Lakuntza, Lantz, Larraun, Lekunberri, Leitza, Lesaka, Luzaide/
Valcarlos, Oitz, Olazti/Olazagutía, Orbaitzeta, Orbara, Orreaga/Roncesvalles,
Saldias, Sunbilla, Uharte-Arakil, Ultzama, Urdazubi/Urdax, Urdiain, Urrotz,
Zubietza, Ziordia eta Zugarramurdi.

- b. Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua: Abartzuza, Agoitz, Antsoain,
Artzibar, Atarrabia, Atetz, Barañain, Berriobeiti, Berriozar, Bidankoze,
Bidaurreta, Burgi, Burlata, Deierri, Eguesibar, Erronkari, Espartza Zaraitzu,
Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Garde, Gares, Gesalatz, Goñerri,
Gorza, Iruña, Itza, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Lezaun, Lizarra, Lizoain-
Arriasgoiti, Odieta, Olaibar, Ollaran, Oltza Zendea, Orkoien, Orontze, Orotz-
Betelu, Otsagabia, Sartze, Txulapain, Uharte, Urzainki, Uztarroze, Zabaltza,
Ziritza, Zizur eta Zizur Nagusia.

Eremu misto hori automatikoki hedatu ahalko da Arangurengo, Belaskoaingo,
Galarko eta Noain-Elortzibarko udaletara, baldin eta toki korporazio horietako
bakoitzeko Osoko Bilkurak gehiengo osoz hartzen badu erabakia. Erabakiak
eragingarritasun osoa izan dezan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu
beharko da.

- c. Eremu ez-euskalduna, gainerako udalerriek osatua.
2. Aurreko atalean zehaztutakoa berrikus daiteke, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri
eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. eta 20.2 artikuluetan ezarritako
prozedurari jarraikiz.
3. Nafarroako Gobernuak aldian-aldian euskararen errealitate soziolinguistikoari
buruzko azterlanak egiteko aginduko du, eta horien berri emanen dio Parlamentuari.

Zonifikazioak ondorio zuzenak ditu herritarrengan; eremu bakoitzean dituen ondorioak
azaltzen saiatuko naiz datozen lerrootan:

3.2.1. Eremu euskalduna.

1. Ondorioa:

Hiztunak eskubidea du euskara balio eta eraginkortasun juridiko osoarekin erabili ahal
izateko, eta inork ezingo dio eskatu berak hautatutako hizkuntza ofiziala ez besteren batean
mintza dadin, eta eskubidea du, orobat, mintzakidea erakunde publikoa bada, berak
hautatutako hizkuntza horretan erantzun diezaion.

2. Ondorioa:

Nafarroan kokaturiko Herri-aginte guztiak daude euskararen ofizialtasun araubidearen pean. Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren ekainaren 26ko 82/1986 Epaia ezarri zituen, neurri batean, ofizialtasunaren mugak: *...es oficial una lengua independientemente de su realidad y peso como fenómeno social, cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados, con plena validez y efectos jurídicos.*

- Eremu euskaldunean diren Nafarroako Gobernuaren administrazio erakundeak (Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioa)
- Udalak eta toki-administrazio gainerako erakundeak.
- Europar Batasunak lurralde horietan ezar ditzakeen administrazio-erakunde edo ordezkariak.
- Erakunde autonomoaren izaera duten administrazio-erakundeak: Instituto Nacional de Estadística (INE), Instituto Nacional de Empleo (INEM) , Instituto Nacional de la Seguridad Social (INSS), Agencia Estatal Tributaria, Red Nacional de Ferrocarriles Españoles (RENFE), Correos y Telégrafos, eta abar.,
- Nafarroan diren bertako zein nazioarteko beste herri-aginteak

3. Ondorioa:

Harreman publiko nahiz pribatuetarako euskara askatasunez hautatu ahal izango dute herritarrek.

4. Ondorioa:

Berdintasunerako eskubidea eta hitz egiteko euskara hautatzeagatik bereizkeriarik ez jasateko eskubidea dute herritarrek. Espainiako 1978ko Konstituzioaren 14. artikulua: “Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.”

5. Ondorioa:

Herritarrek eta herri-aginteak konstituzioaren eta ordenamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude.

Espainiako 1978ko Konstituzioaren 9. artikulua: "Herritarrek eta botere publikoak Konstituzioaren eta antolamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude. 2. Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien partehartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere. (...)"

Espainiako 1978ko Konstituzioaren 103. artikulua: "1. Herri Administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, dezentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez. (...)"

6. Ondorioa:

Herritar guztiek dute eskubide berbera euskara ofiziala den lurraldeko edozein lekutan erabiltzeko. (Konstituzio-auzitegiaren 82/1986 epaiaren 2. oinarri juridikoa, eta 337/1994 epaiaren 5. oinarri juridikoa).

7. Ondorioa:

Herri-aginteei aukera dute herritarrekiko harremanetan hizkuntza ofizialkideetako bat edo bestea -bat bakarra- erabiltzeko.

8. Ondorioa:

Nafarroako herritarrei euskara jakin eta erabiltzeko eskubidea onartzen zaie, eta hezkuntza euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko eskubidea, Legeak ezarritako baldintzetan, Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera, eta printzipio hauekin bat etorriz: borondatezkoa izatea, mailakakoa izatea eta begirunea.

Euskararen Legearen 1. artikulua: "2. Lege honen funtsezko helburuak dira: (...) c) Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera, eta beti ere, printzipio hauekin bat etorriz: borondatezkoa izatea, mailakakoa izatea eta begirunea."

Euskararen Legearen 19. artikulua: "Herritar guztiek dute eskubidea hezkuntzako era bateko eta besteko mailetan irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko, ondoren datozen kapituluetan ezarritako baldintzetan".

9. Ondorioa:

Administrazio-jakinazpen eta -komunikazioak euskara hutsez jasotzeko eskubidea, euskara hutsez jasotzeko aukera berariaz egin dutenean, eta hizkuntzetako bat berariaz aukeratu ez dutenean, bi hizkuntza ofizialez idatzita jasotzekoa.

Fede-emaile publikoei euskarazko kopiak eta lekukotzak eskatu eta horiek euskaraz eskuratzeko eskubidea, eta fede-emaile horien erantzukizunekoak diren matrize eta agiriak itzultzeko ardura fede-emaileena euren izatekoa. Hala eta ere, gune euskaldunetik kanpoko ondorioak izango dituzten kopiak gaztelaniaz eman beharko dira.

Erregistro publikoetan, agiria idatzita dagoen hizkuntza ofizial bera erabiliz egingo dira idazpenak, eta edozein kasutan, baita gaztelaniaz ere. Kopia eta ziurtagiriak euskaraz eskatu eta jasotzeko eskubidea.

3.2.2. Eremu mistoa.

Herri hauetan euskara ez da ofiziala. Euskararen Legeak eremu mistoko herritar guztiei ezagutzen die Nafarroako Herria Administrazioarekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta lege horretan aurreikusten denez, herri-administrazio horiek zehaztu egin behar dute zein lanpostu publikotarako izango den beharrezkoa euskara jakitea.

3.2.3. Eremu ez-euskalduna.

Herri hauetan euskara ez da ofiziala. Eremu ez-euskalduneko herritarrek Nafarroako Herri Administrazioari euskaraz zuzentzen bazaizkio, badago, Legearen arabera, gaztelaniara itzul dezaten eskatzea.

3.2.4. Hedabideen inguruko araubidea.

Euskararen legeak III. tituluari euskararen erabilera arautzen du komunikabide sozialen esparruan. 27. artikuluan, euskararen presentzia handiagotzea sustatuko dela onartzen du, komunikabide sozial publiko nahiz pribatuetan, eta horretarako diru laguntzak gauzatuko direla aurreikusten du. Hona 27. artikulua dioena, zehatz-mehatz:

1. Administrazio Publikoek komunikabide sozial publiko eta pribatuetan euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan sustatuko dute.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu, komunikabideek euskara progresiboki eta ohiko moduan erabil dezaten.

2. Foru Komunitateak kudeatzen dituen telebista eta irrati emisora eta gainerako komunikabideetan, Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia egokia begiratu du.

2015-2019 legealdiko Programa Hitzarmenean Nafarroako Gobernua sostengatzen duten alderdiek euskararen gaineko politikari doakionez hainbat akordio adostu zuten. Euskarak hedabideetan duen presentzia hobetzeari buruzko akordioak honakoak dira:

- Euskarazko komunikabideen eta euskara hein jakin batean erabiltzen dutenen finantzaketa lehengoratzeari eta hobetzea eta, horretarako, hitzarmenak eta laguntzak emateko deialdiak egitea.
- Finantzaketa publikoa duten hedabideak programen ehunekoren bat euskaraz ematera behartzea, deialdi bakoitzak finkatzen duen ratioaren arabera.
- Nafarroako herritar guztiek euskarazko hedabideak erabili ahal izatea ziurtatzeko neurriak hartzea.

Bestalde, 2017ko urtarrilean Nafarroako Gobernuak Euskararen I. Plan estrategikoa onetsi zuen (Euskarabidea, 2017). Bete beharreko helburuak eta horretarako egin beharreko ekintzak zazpi ardatzetan banatuak daude eta programa Hitzarmenean adostutakoak betetzeko helburuak ere Plan Estrategikoan biltzen dira, "Gizarte erabilera" ardatzean, hain zuzen ere.

Ardatzaren helburu nagusia euskararen erabilera igotzea da, erabilera erraztuz gizarte arlo guztietan. Helburu espezifikoaren artean, euskarazko hedabideen eskaintza eta erdarazkoetan euskararen presentzia areagotzeko xedea argi azaltzen du, baita horiek erdiesteko burutu beharreko ekintzak ere:

"4. Euskarazko hedabideen eskaintza eta erdaraz diren hedabideetan euskarak duen tokia zabaltzea, herritarrei euskarazko informazioa eskuragarriago eta errazago paratzeko.

ARLOAK Euskarazko hedabideak

EKINTZAK

- *Formulak ezartzea (hitzarmenak, laguntza deialdiak, etab.) euskarazko hedabideen finantzaketa hobetzeko.*
- *Foru Administrazioaren eta sektorearen arteko lankidetzaren guneak sustatzea euskarazko hedabideen arloaren beharrei hobeki erantzuteko.*

- *Euskarazko hedabideen eskaintza egokia eta kalitatea bermatzeko formulak aztertzea.*
- *Euskarazko hedabideen eskaintza herritar guztiengana heltzeko dauden hutsuneak betetzeko ekimenak bultzatzea.*
- *Haur eta gazteendako ETB3 kanal tematikoa Nafarroa osoan har dadin bultzatzea.*

ARLOAK Gaztelaniazko hedabideak

EKINTZAK

- *Hedabideen programazioan euskararen presentzia sustatzea, laguntza deialdi bidez.*
- *Finantzaketa publikoa jasotzen duten hedabideek ekoizpenaren zati bat euskaraz egin dezaten arautzea.*” (Euskarabidea, 2017; 39-40 or.)


Diru-laguntzen gaiari dagokionez, lau urtez (2012-2015) Nafarroako diru laguntzarik gabe egon ondotik, 2016an berreskuratu ziren. Berri pozgarria izan zen tokiko hedabideentzat, baina egoera makurragoan gelditu ziren, ia den-denek diru kopuru txikiagoak jaso baitzituzten. Gainera, gutxienez ondoko hiru urteetan, Eusko Jaurlaritzak 24 urtez emandako laguntza ez dute jasoko, Jaurlaritzak eta Foru Gobernuak adostuta³.

3.3. Euskara Nafarroan, egoera soziolinguistikoa

3.3.1. Ezagutza.

VI. *Inkesta Soziolinguistikoa* (Nafarroako Gobernua *et al.*, 2016) lortutako datuen arabera, 2016an Nafarroan 16 urteko edo gehiagoko biztanleriaren % 12,9 euskalduna da, % 10,3 euskaldun hartzailea eta % 76,7 erdaldun bakarra.

Grafikoa 4. Hitzkuntza-gaitasuna. Nafarroa, 2016 (%)




ITURRIA: Nafarroako Gobernua, *et al.* (2018: 3 orr.) VI. *Inkesta soziolinguistikoa*

³ <https://erran.eus/mendialdea/1473854157199-urtetik-urtera-laguntza-murritzagoak-nafarroako-euskarazko-hedabideentzat>


Hala ere, Nafarroa herrialde askotarikoa da eta zonalde batetik bestera datuak asko aldatzen dira. Izan ere, eremu euskaldunean populazioaren % 61,1 da euskalduna, eremu mistoan % 11,3 eta eremu ez euskaldunean % 2,7 (beti ere, 16 urteko edo gehiagoko biztanleak kontuan harturik).

Grafikoa 5. Hizkuntza-gaitasuna, eremuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



ITURRIA: Nafarroako Gobernua, et al, (2018: 4 orr.) VI. Inkesta soziolinguistikoa

Azken urteotako bilakaerari erreparatuz gero, igoera nabarmena izan da. 1991n % 9,5 ziren elebidunak Nafarroan, beraz, 3,4 puntuko igoera izan du euskaldunen portzentajeak.



ITURRIA: Nafarroako Gobernua, et al, (2018: 3 orr.) VI. Inkesta soziolinguistikoa


Igoera hau, ordea, ez da parekoa izan zonalde guztietan: eremu euskaldunean apenas aldatu da, % 60-61 inguruan mantendu baita; eremu mistoan % 5,2 izatetik % 11,3 izatera pasa da, igoerarik handiena izanik; azkenik, eremu ez euskaldunean, % 2,7 dira euskaldunak, duela hogeita bost urte % 0,6 zirelarik.

Hala ere, ezagutzak ez du gaitasun erlatiboa bermatzen. Izan ere, euskal hiztun askok adierazpen arazoak dituzte eta horrek ere badu eragina erabileran zein euskarazko hedabideen kontsumoan, hizkuntza erraztasunez erabiltzen ez duenak, nekez kontsumituko ditu euskarazko edukiak telebistan, irratan zein prentsa idatzian.

Inkesta soziolinguistikoak (Nafarroako Gobernua *et al.*, 2016) hiru multzotan bereizten ditu euskaldunak, hitz egiteko duten erraztasunaren arabera.

- **Euskal elebidunak:** euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen da nafarren % 23,2. Aipatzekoa da ia euskal elebidun guztien, % 95, lehen hizkuntza euskara dela eta % 81 eremu euskaldunean bizi dela.
- **Elebidun orekatuak:** euskaraz zein erdaraz berdin moldatzen direnak dira. Elebidunen % 25,7 dira. Kasu honetan ere, gehienak (% 74) lehen hizkuntza euskara da eta erdia baino gehiago (% 58) eremu euskaldunean bizi da. Elebidun orekatuen % 38 eremu mistoan bizi da.
- **Erdal elebidunak:** erdaraz euskaraz baino hobe moldatzen dira eta euskaldunen multzorik handiena osatzen dute Nafarroan (% 51,1). Gehienak, % 71, eremu euskaldunean bizi dira eta erdara izan dute lehen hizkuntza (% 75).

Grafikoa 7. Euskaldunak erraztasunaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)




ITURRIA: Nafarroako Gobernua, *et al.* (2018: 8 orr.) VI. Inkesta soziolinguistikoa

Dakigunez, eremu batetik bestera egoera soziolinguistikoa oso desberdina da Nafarroan. Alderik handienak, hain zuzen ere, erraztasunean daude. Eremu euskaldunean, euskal hiztunen % 43,4k euskaraz erdaraz baino errazago aritzen da. Herena elebidun orekatua da (% 34,1) eta bostena baino gehixeago dira erdaraz erraztasun handiagoa dutenak (% 22,5).

Egoera bestelakoa da eremu mistoan: gehienak hobeto moldatzen dira erdaraz (% 71,9). Euskaldunen % 19,6 berdin moldatzen da euskaraz zein erdaraz eta % 8,4 baino ez da euskal elebiduna.

Eremu euskaldunean euskal elebidunen portzentajea oso baxua da: % 2,7. Gehienak erdal elebidunak dira (% 80,2) eta % 17,1 elebidun orekatuak dira.


Grafikoa 8. Euskaldunen erraztasuna, eremuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



ITURRIA: Nafarroako Gobernua, et al, (2018: 9 orr.) VI. Inkesta soziolinguistikoa

Bilakaerari erreparatuz gero, nabaria izan da azken 25 urteko aldaketa erraztasunari dagokionez. Elebidun orekatuen kopurua oso gutxi aldatu da (1991n % 26,6 ziren eta orain % 25,7 dira), baina 1991n euskal hiztunen % 40,6 euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen zen eta orain, 2016an, % 23,2 dira euskal elebidunak. Erdal elebidunak % 32,8 izatetik % 51,1 izatera heldu dira. Horra grafikoa:

Grafikoa 9. Euskaldunen erraztasunaren bilakaera. Nafarroa, 1991-2016 (%)



ITURRIA: Nafarroako Gobernua, et al.,(2018: 11 orr.)VI. Inkesta soziolinguistikoa

3.3.2. Erabilera.

VI. Inkesta Soziolinguistikoa (Nafarroako Gobernua et al., 2016) aditzera eman duenez, 1991 eta 2016 urteen arteko bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilera gorabeherak izan ditu Nafarroan. 20 urtean beheranzko joera arina izan ostean, azken bost urteotan joera hori aldatu egin da eta euskararen erabilera gora egin du (% 1,1). 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 12,2 da euskara neurri batean edo bestean erabiltzen duena. % 6,6k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du egunerokoan eta % 5,6k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago. Gainerako % 87,8ak erdara erabiltzen du beti edo ia beti.


Grafikoa 10. Euskararen erabileraren tipologia. Nafarroa, 2016 (%)



ITURRIA: Nafarroako Gobernua, et al.,(2018: 21 orr.)VI. Inkesta soziolinguistikoa

Hizkuntza-gaitasunarekin bezala, erabilerari buruzko datuetan alde handiak daude eremu batetik bestera. Zonalde euskaldunean % 50,7 dira euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak (erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak), % 3,2 mistoan eta % 0,2 eremu ez euskaldunean. Badira ere euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago. Horiek % 11,9 dira eremu euskaldunean, % 10,8 mistoan eta % 2,5 eremu ez euskaldunean.

Grafikoa 11. Etxean euskara erdara best edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Nafarroa, 1991-2016 (%)




ITURRIA: Nafarroako Gobernua, et al, (2018: 24 orr.) VI. Inkesta soziolinguistikoa

1991ko datuekin alderatuta, 3,9 puntu egin du gora eremu euskaldunean euskararen erabilera trinkoa egiten dutenen ehunekoak eta 1,5 puntu eremu mistoan. Zonalde ez euskaldunean ez da aldaketarik izan euskararen erabilerari dagokionez.

Azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak gorabehera txikiak izan ditu: batez beste 0,6 puntu egin du gora. Hala ere, 20 urtean beheranzko joera txikia izan ondoren, azken bost urteotan joera-aldaketa gertatu da, eta euskararen erabilerak 1,1 puntu egin du gora. Ikusi beharko da datozen urteetan joera-aldaketa hori egonkortzen den. Euskararen erabilerak gora egin du eremu euskaldunean eta eremu mistoan. 1991 eta 2016 bitartean, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 3,9 puntu egin du gora eremu euskaldunean eta 1,5 mistoan. Eremu ez euskaldunean, bere horretan jarraitzen du euskararen erabilerak.

Grafikoa 12. Euskararen erabileraren bilakaera. Nafarroa, 1991-2016



ITURRIA: Nafarroako Gobernua, *et al.* (2016: 22 orr.) VI. Inkesta soziolinguistikoa

3.4. Aralarko Iparraldea, jendartea eta euskara

Nafarroako eskualdeak banatzeko hainbat bertsio aurki daitezke: Euskararen Legeak ezarritako zonifikazioa, merindadeak, Nafarroa 2000 deiturikoa, etab. Lan honetan Gaindegiaren, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia, eskualde banaketa aukeratu dut.

Aralarko Iparraldea zabala eta anitza da. 8 udalerrik eta 28 herrik osatzen dute eremu mistoan kokatua dagoen eskualde hau. Gaindegiaren datuen arabera, 2017 urtearen bukaeran eskualdeak 7.300 biztanle inguru zituen, honela banatuak:

- Leitza: 2. 856
- Lekunberri: 1.502
- Larraun: 974
- Goizueta: 717
- Araitx: 523
- Betelu: 346
- Areso: 261
- Arano: 110

Egun, Betelu, Arano eta Lekunberri izan ezik, gainerakoak Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) partaide dira.

3.4.1. Ezagutza

Nafarroako udalerrietan euskararen ezagutzaz ditugun azkeneko datu ofizialak 2001. urtekoak dira. Baliteke ordutik hona gauzak zertxobait aldatu izana, baina puntu batzuk gora behera, egoera nahiko egonkorra da oro har.


Mendialdeko Euskara Mankomunitatearen parte den eskualdeko Euskara Zerbitzuak ikerlan hau egiteko eskainitako datuen arabera, Lekunberrin euskararen ezagutza % 60 eta % 80 bitartekoa da, eta gainerakoetan %80tik gorakoa. Hortaz, ezagutzari dagokionez, nahiko inguru euskalduna eta trinkotua osatzen dutela esan daiteke.

Eskualdeko herri gehienak, honenbestez, oso euskaldunak dira, eta eskualdeko biztanle gehienek euskaraz ongi hitz egiten dute. Ahozko gaitasunari dagokionez, euskaldun gehienak ongi moldatzen diren arren, idatzizko gaitasunari buruzko datuak, ohi denez, apalagoak dira, batez ere 40 urtetik gorakoen belaunaldietan.

Bestalde, hizkuntzaren transmisioari dagokionez, ia salbuespenik gabe, euskaldunek euskara ematen diete beren ondorengoei; familiaren bidez euskararen transmisioa hutsune handirik gabe gertatzen da eta ia ez dago galerarik. Bada, ordea, hizkuntza transmititzeko beste bitarteko garrantzitsu bat: irakaskuntza, alegia. Eskualdeko belaunaldi berriak, ia bere osoan, euskaraz eskolatzen dira, ikastetxe publikoetako D ereduaren bitartez. Hortaz, okerrik gertatu ezean, datozen urteotan belaunaldi berrien euskararen ezagutza ia erabatekoa izanen da eskualde osoan.

Grafikoa 13. Euskararen ezagutza Aralar Iparraldea, 2001 (%)

Lanketa propioa



ITURRIA: Ipar Mankomunitateko Euskara Zerbitzua

Labur esanda, ezagutzari buruz ditugun datuak nahikoa onak dira oro har, eta abiapuntu ona eskaintzen digute hizkuntzaren normalizazioaren ikuspegitik. Hauek dira euskararen ezagutzari dagokionez eta 2001eko zentsuaren arabera Aralarko Iparraldeko datuak:

3.4.2. Erabilera

Batzuen eta besteen artean aldeak badaude ere, euskararen erabilera indartsua da eskualdean. Herri euskaldunenetan euskara gaztelaniari nagusitzen zaio herri horietako hainbat espaziotan eta adin-taldetan (hezkuntza, tokiko hedabideak, kaleko erabilera, udalen funtzionamendua, aisialdia eta kultur eskaintza). Lekunberrin, ezin gauza bera esan; erdarak indar handia du bizitza sozialeko esparru askotan, baina hezkuntza eta toki hedabideetan euskararen nagusitasuna argia da.

Beste zenbait esparrutan, ordea, errealitatea bestelakoa da eskualde osoan. Lan-munduan, esaterako, erdarak presentzia handia du; arlo idatzian, are gehiago. Merkataritza sektorean ere, erdarak espazio handia bereganatua du, euskarak aurrera egin eta egiten jarraitzen duen arren. Erdara nagusi da, erabat, bertakoak ez diren egunkari, telebista zein irratietan; baita teknologia berrietan ere. Azkenik, harreman pertsonaletan euskara erdara baino gehiago erabiltzen bada ere, bistakoa da euskaldun askoren arteko eguneroko jardunean gaztelaniak ere bere lekua hartzen duela. Beraz, erabilerari dagokionez, asko dago irabazteko eskualde honetan.

Aipatu nahi dut ez dagoela eskualde osoko euskararen erabileraz egindako ikerketa espezifikorik edo berariazkorik. Dauden neurketa edo datu bilketa apurrak alor edo udalerrri jakinetan egin izan dira, kale neurketak, esaterako. Baina ez dira eskualde osorako aplikagarriak, eta neurketa horietan ateratako datuak ezin dira eskualde osoko irakurketa bakarrean bere horretan hartu.

3.5. Aralarko Iparraldea, tokiko hedabideak

Aurreko puntuan Aralarko Iparraldera lehen hurbilpena egin dugu, jendartearen datu soziolinguistiko nagusiak jasota euskararen egoera ezagutuz. Oraingoan, eskualdeko tokiko hedabideak aztertuko ditugu, hau da, ikerketaren unibertsoa izanen dena.

3.5.1. Irratiak.

Egun, bi irratik emititzen dute eskualdean: Aralar Irratia eta Karrape Irratia. Lehenak Araitz, Betelu, Lekunberri eta Larraun udalerrietan emititzen du FM frekuentzian eta euskara hutsez emititzen du. Hala ere, tarteka, erdarazko edukiak ere jorratzen dituzte, elkarriketaren bat edo beste, esaterako. 1991ko maiatzan sortu zen, eskualdean euskara bultzatu eta etxeetara bertako informazioa helarazteko helburu argiarekin. Gaur, hiru ordu eta erdiko

zuzeneko emisioa eskaintzen du, astelehenetik ostiralera, 10:30etatik 14:00etara. Gainerako orduetan, Euskadi Irratiak emititzen du maiztasun horretan.

Karrape Irratiari dagokionez, Leitzako katea da, nahiz eta Areson ere entzuten den. Aurrekoak bezala, euskara hutsez emititzen du egunero hiru ordu eta erdiz, astelehenetik ostiralera. 1996an sortu zen, herritarren ekimenenetik: talde bat lanean hasi zen, materiala erosi, irratia egokitzeko lokala bilatu eta irratian lan egiteko pertsona egokiak aukeratuz. 1997aren erdialdean hasi ziren emititzen.

Goizuetak eta Aranok ez dute irratia propiorik. Hala ere, aipatu beharra dago herri hauetan, baita Leitzan ere, Baztango Xorroxin Irratia entzuteko aukera dagoela. Ikerketa honetako unibertsoetik kanpo utzi dut, ez baita eskualdean eta eskualderako propio sortua. Nolanahi ere, herri horietako berriak zabaltzen dituzte eta euskarazko irratia zerbitzua haiei esker jasotzen dute gure eskualdeko zenbait herritan.

3.5.2. Aldizkariak.

Mailope aldizkaria Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberri udalerrietan banatzen da. Gai orokorrak jorratzen ditu, betiere, eskualdeari lotuak. Albisteak, iritzi artikulak, elkarrizketak, erreportajeak, zorion-agurrak, kultur-ekimenak, kirola eta abarrerako tarteak ditu aldizkariak. Egun 32 orrialdeko hilabetekaria da, koloretan inprimatzen da eta 1.600 aleko tirada du.

Lehen zenbakia 1990an kaleratu zuten Araitz eta Betelun eta lau urte beranduago, Larraun eta Lekunberri hartu zituen bere baitan. Herritar talde batek sortu zuen, bertako gaiak eta berriak zabaltzeko eta euskara bultzatzeko asmoz. Gaur, enpresa pribatu batek kudeatzen badu ere, bailarako Euskara Batzordearen esku dago aldizkaria; baina helburua bera da: tokiko informazioa landu eta euskara sustatu.

Leitzako aldizkaria **Marmari** da. Euskara zerbitzuak egiten du eta gai nagusi ditu euskara, kultura, Leiza eta Leitzako herrigintza. Urtean behin argitaratzen den 28 orrialdeko eta euskara hutsezko aldizkaria da. 2000. urtean argitaratu zen lehen aldiz.

Xapo Goizuetako herri aldizkaria da. Goizuetako Kultur Taldeak eta Goizueta, Leiza, Areso eta Aranoko Udaletako Euskara Zerbitzuek egiten dute (Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak, alegia). Euskara, kultura, Goizueta eta bertako herrigintza lantzen ditu, urtean behin argitaratzen den 28 orrialdeko aldizkari honek. 2002. urtean kaleratu zen estreinakoz.

Aranoko herritar talde batek sortu zuen **Miaxiria** aldizkaria, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearekin batera. Aurrekoetan bezala, herriko gertakariak eta herrigintza lantzen dituzte euskara eta kulturaz gain. Euskara hutsez idatzia dago eta 32 orrialde ditu. 2010ean

argitaratu zen lehendabiziko alea eta geroztik lau zenbaki kaleratu dira, bi urtean behineko maiztasunaz.

Azkenik, Aresoko **Papanoziri** aldizkaria dugu. Herritarren ekimenez eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen laguntzaz kaleratzen da bi urtean behin (3 zenbaki orain artean). Euskara hutsezko 28 orrialdeko aldizkaria da eta eskualdeko aldizkari gehienek bezala, euskara, kultura eta herrigintza dira jorratzen dituen gaiak.

Aipatzekoa da, Leitzan, Areson, Goizuetan zein Aranon Ttipi-ttapa aldizkaria jasotzen dutela hamabostean behin eta honen bitartez lantzen dela egunerokotasuna. Hala ere, aldizkariak lurralde oso zabala hartzen du bere baitan, eta herri hauei eskaintzen dien tarteak nahiko txikia izan ohi da (normalean, Leitzak orrialde erdia eta gainerakoek laurdenaren inguru hartzen dute). Ttipi-ttapa ikerlan honen eremutik kanpo uztea erabaki dut; batetik, gure eskualdeko herriei buruzko informazioa eskasa delako eta, bestetik, aldizkariaren ekoizpena ez dagoelako eskualdeko eragileen esku (ez da bertan ekoizten).

3.5.3. Telebistak.

Aralarko Iparraldean ez dago toki telebistarik. ETBren lehen kanalaren (ETB1) seinale digitala jasotzen da eskualdean, ez ordea, euskal telebistaren gainerako kanalak. Bereiziki deigarria da ETB3 katearen kasua. Orain urte batzuk euskal talde multimedialak hirugarren katea sortu zuen, haur-programazioa eta marrazki bizidunak bilduko zituen kanal tematikoa. Digital bidezko lege berriak eta kanalen esleipenak aprobetxatuz, ordea, Nafarroako Gobernuak ETB Nafarroa osoan normaltasunez emititzea oztopatu zuen. Gobernu berriak, aldiz, soluziorako jarrera izan zuen eta ETB1 digitalean emititzea baimendu zuen. Dena dela, estatu mailako arauak medio, oraindik ere, gaur egun ETB2 frekuentzia analogikoan ikusten da eskualdean eta ETB3 ez dago ikusterik.

Asko ikertu da jolasaren inguruan azken hamarkadetan eta, oro har, ikerketek erakusten dute jolasak lotura estua duela hizkuntzaren garapenarekin. Ikerlerro interesgarria litzateke Nafarroan ETB3 kanalaren emisio ezak eta, ondorioz, euskarazko haur-programazio faltak euskararen normalizazioan zein zonalde hauetako euskararen garapean duen eragina aztertuko lukeena, baina lan honen eremutik kanpo geratzen da eta ez diot bide horri helduko.

Hamaika Telebistak eta Xaloe Telebistak ere emititzeko baimena dute, baina gaur gaurkoz, Iruñerrian besterik ez dira ikusten ahal.

4. Metodologia eta emaitzak

Lan honen helburuak erdiesteko, metodologia kuantitatiboa zein kualitatiboa erabili da. Ikerketa kuantitatiborako bide bat da beste batzuk sortu edota bildu dituzten datuak edota materialak aztertzea; alegia, bigarren mailako iturrien ustiaketak edo iturri ez zuzenen azterketak burutzea (Martinez, Z. *et al*, 2017: 79). Teknika honek zenbait abantaila ditu:

- Informazio kutsatugabea da, ikertzaileak ez baitu datuen bilketan parte hartzen.
- Bilakaera aztertzeko aukera ematen du, beti ere, datuak denbora luzean bildu badira.
- Teknika merkeagoa eta azkarragoa da beste batzuen aldean, informazioa sortu, antolatu eta gorde beste pertsona batuzek egin baitute neurri handi batean.
- Datuetara behin eta berriz bueltatzeko aukera ematen du, ikerketa aurrera joan ahala agertu daitezkeen galdera edo hipotesi berriak aztertzeko aukera emanez.

Hala ere, desabantailak ere baditu:

- Informazio guztia ez da era sistematikoak gordetzen edota era askotara artxibatzen da. Arazo hau oso ohikoa da erakunde ezberdinek jasotako datuak aztertzerakoan eta areagotu egiten da egitura administratibo ezberdinetako erakundeen datuak erabiltzeko garaian. Ondorioz, maiz oztopoak izaten dira datuak biltzeko edo alderaketak egiteko.
- Zenbaitetan, informazioa ez da zehatza, eta soslaitua edo faltsua izan daiteke. Hau saihesteko, kalitatezko datuak direla ziurtatu behar da.
- Egon badauden arren, sarritan zaila da informazioa eskuratzea, adibidez, ezin direlako artxiboetatik atera.
- Neketsua edo oso garestia izan daiteke, ikerketan datu asko behar izanez gero.

Aralar Iparraldeko euskarazko komunikabideen kontsumoa aztertzeko iturri ofizialetako datuak arakatuko ditut, baita tokikoen kontsumoaren pisua definitzeko ere. Kontsumo ohituren aldaketa azaleratzeko ere, bigarren mailako datuak erabiliko ditut. Alde batetik, ikerlan hau egiteko baliabideak eskasak dira eta ezinezkoa litzateke behar bezalako datu bilketa egitea. Beraz, bigarren mailako datuak erabiltzeak, horiek azkarrago lortzea baimentzun du; gainera, iturri ofizialetatik bildutako datuak izateak, fidagarritasuna eta baliagarritasuna bermatzen da.

Ikerketaren bigarren fasean, eskualdeko tokiko hedabideek egindako ibilbidea, egungo egoera eta etorkizunari begira duten ikuspuntua aztertu nahi izan dut. Horretarako, hedabideetako arduradunekin egindako elkarrizketak baliatuko ditut. Elkarrizketa bi subjektuen arteko aurrez aurreko interakzioa da, bata ikertzailea (ni neu) eta bestea elkarrizketatua (hedabide bakoitzeko arduraduna, alegia). Helburua haien ikuspuntua, jarrera eta iritziak ezagutzea da, bereziki, egungo egoera aztertze zein etorkizuneko erronkak identifikatze aldera.

Hori horrela, elkarrizketarako gidoi erdi-egituratua diseinatu da, egitasmoaren helburuetara hobekien egokitzen den teknika dela uste baitut. Izan ere, gidoi bat jarraituz elkarrizketatuak libre eta mugarik gabe solasteko aukera du, baina elkarrizketatzailearen gidaritzapean eta gidoiaren laguntzaz, informazio zehatzagoa eskainiko duten galderak bideratzea baimentzen du.

4.1. Analisi kuantitatiboa

Analisi kuantitatiboaren oinarria datuak dira eta egokia da egoera bat aztertzeko edo, bestela esanda, egoera zehatz baten argazki orokorra egiteko. Ikerlan honen planteamenduari jarraiki, lehenengo pausua eskualdeko euskarazko komunikabideen kontsumoa eta kontsumo ohituren bilakaera aztertzea da eta helburu horri begira, iturri ofizialetako datuak erabiltzea iritzi diot aproposen.

Nafarren ohitura komunikatiboak aztertu dituen lan espezifiko bakarra da CIESeK Foru Gobernuarentzat egindako *Barómetro Audiovisual de Navarra 2010*. Txostenak bere baitan hartzen dituen estatistikak hainbat irizpideren arabera xehetzeko aukera ematen du (eskualdea, sexua, herriaren biztanle kopurua, sexua, adina, ikasketa-maila, lan-egoera, gizarte-maila, adinez txikikoen presentzia etxean, egoera zibila, etxean bizi den pertsona kopurua eta ekipamendu teknologikoa), baina herritarren hizkuntza-gaitasuna ez da kontuan hartzen.

Euskarazko hedabideak ez dira aipatzen txostenean, eta Foru Gobernuaren iritziz nafarrak ez diren kate guztien kontsumoa biltzeko, *beste autonomia erkidegoetako hedabideak* kategoria erabiltzen da. Hala ere, baieztatu daiteke *Nafarroaz kanpoko kateen* kontsumoaren gehiengoa EAEko kateena dela. Aipatutako taldekatzea dela medio, ezin da zorrotzasunez jakin zein den EAEn sortutako kateen erabilera; ondorioz, ezta euskarazko kateek zer nolako jarraipena duten. Nabarmentzekoa da euskara behin baino ez dela aipatzen txosten osoan, irriti lokala eta erregionalari buruzko atalean, alegia. Atal horretan, euskarak hedabideetan presentzia nahikoa duen galdetzen zaie parte hartzaileei.

Dena dela, urteak pasa dira txosten hura argitaratu zenetik eta egungo argazki orokorra osatze aldera, CIES erakundearen neurketetan eskuratutako datuez baliatuko naiz, zehazki

2017ko akumulatukoak. Bilakaera aztertzeko, ordea, AIMC elkarteak urtero argitaratzen duen *Marco General de los Medios 2018* txostena izan dut oinarri, 2017ko datuak biltzen dituen, hala nola, erakunde berak plazaratutako *Audiencia de Internet* txostena (kasu honetan, 2018ko apirila eta maiatzeko datuak biltzen dituen).

Aipatutako iturriek, alabaina, ez dute toki hedabideen inguruko daturik jasotzen. Aralar Iparraldeko toki hedabideak txikiak dira, baita, herritar kopuruaren aldetik, horiek barne hartzen duten eremua. Besteak beste ezaugarri hori dela medio, ez dago ikerlan honen unibertsoa osatzen duten hedabideen kontsumoaren inguruko datu zehatzik. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren zein Behategiaren datuak erabili ditut tokikoen kontsumoak zenbateko pisua duen azaltzeko.


Hala ere, iturri hauetan guztietan, eskualdeko datuek Mendialde osoa hartzen dute bere baitan, eta kontuan izan beharra dago Aralarko Iparraldea horren parte bat besterik ez dela.

4.1.1. Kontsumo ohiturak.

CIESek, hiru hilabeteen behin egiten du Ola de Medios izeneko neurketan, hedabide mota bakoitzak duen kontsumitzaile kopurua biltzen du. Hona 2017ko akumulatuak eskaintzen dituen datuak, audientzia orokorrari dagokionez:

Grafikoa 14. Hedabideen kontsumo orokorra Nafarroan, milakoetan (2017)

Lanketa propioa



ITURRIA: CIES (2017). *Estudio de la Audiencia de Medios de Comunicación en la C. A. De Euskadi y Navarra*

Datuek argi diote telebista dela neurtutakoen artean komunikabide indartsuena, alde handiz, gainera. Prentsari dagokionez, oraindik ere, paperezko kontsumoa gailentzen zaio digitalari.

Ilido berean, AIMC elkarteak egindako neurketaren arabera, telebista da Nafarroan arrakastan handiena lortzen duen euskarria. Batez beste, nafarrek 204 minutu ematen dute egunean hari begira. Atzetik, irratia da gehien kontsumitzen den komunikabide-mota. Izan ere, nafarrek egunero 117 minutuz entzuten dute irratia. Nabarmentzekoa da Nafarroako herritarrek sarean nabigatzeari eskaintzen dioten denbora: 106 minutu egunean.

Nafarrek telebistaren aurrean ematen duten denboran, espainiar estatuko telebista nagusiak kontsumitzen dituzte nagusiki CIESen neurketaren arabera, galdeketaren aurreko eguneko ikusle kopuruak aintzat hartuta. Pantailaren aurrean lagun gehien bildu zuten, hurrenez hurren, *Antena3* (130.000 ikusle), *Tve1* (101.000), *La Sexta* (97.000) eta *Tele5* (96.000). Datu apalagoak dituzte *Cuatro* eta *Tv2* kanalak, 45.000 eta 27.000 ikuslerekkin. Euskal Herriko komunikabideei erreparatuta, Euskal Telebistaren bigarren katea (*Etb2*) izan zen ikusiena (45.000 ikusle), atzetik dituelarik *NavarraTV1* (35.000), *Etb1* (22.000) eta *NavarraTV2* (16.000). *Xaloa Telebista* 4.000 lagun bildu zituen eta *Hamaika Telebista* 3.000. Datuak ikusirik, garbi dago espainiar kateak direla nagusi Nafarroan. Bigarren mailan bertako hedabideak leudeke, audientzia kopuru ezberdinekin eta aurrekoengandik urrun, baina zaku berean sar zitezkeenak; azkenik, Iruñerrian emititzen duten toki telebista euskaldunak daude.

Mugak ez dira hain argiak, ordea, Mendialdeko datuak aztertzerakoan. *Etb2* da telebistarik ikusiena (14.000 ikusle) eta atzetik ditu kopuru berarekin (11.000) *Etb1* eta *Tele5*. Hirugarren postuan daude *La Sexta* eta *Antena3*, hauek ere kopuru berarekin (9.000) eta oso hurbil *Tve1* (8.000). Gainerako kateek oso datu apalak dituzte, *Cuatro* eta *NavarraTV1* (3.000). Ikusle gutxien dituzten kanalak *NavarraTV* eta *Xaloa Telebista* dira, 1.000 ikusle biltzen ditu bakoitzak.

Taula1. Aurreko eguneko tb ikusle kopuruak Nafarroan eta Mendialdean, katearen arabera eta milakoetan (2017)

	Nafarroa	Mendialdea
<i>Antena 3</i>	130	9
<i>Tve1</i>	101	8
<i>La Sexta</i>	97	9
<i>Tele5</i>	96	11
<i>Cuatro</i>	58	3
<i>Etb2</i>	45	14
<i>NavarraTV1</i>	35	3
<i>Tve2</i>	27	1
<i>Etb1</i>	22	11

<i>NavarraTV2</i>	16	1
<i>XaloeTB</i>	4	1
<i>HamaikaTB</i>	3	0

Edukiak kontuan hartuz, Kulturaren Euskal Behatokiaren neurketaren arabera, albisteak dira ikusienak eta, honen atzetik, filmak eta telesailak. Dokumentalak, kirolak eta lehiaketak dira, hurrenez hurren, puntuazio altuena jasotzen duten edukiak, nahiz eta aurrekoek baino datu apalagoak izan. Mendialdean albisteek interes handiagoa sortzen dute Nafarroako datu orokorrekin alderatuta, baina, oro har, datuak nahiko antzekoak dira.

Taula 2. Pertsonak, telebista-programetako lehentasunen arabera, Nafarroan eta Mendialdean, peortzentaieetan (2007-2008)

	Nafarroa	Mendialdea
<i>Albisteak</i>	75,4	82,3
<i>Filmak</i>	48,3	44,6
<i>Telesailak</i>	45,4	41,3
<i>Dokumentalak</i>	26,7	27,1
<i>Kirolak</i>	22,1	28,4
<i>Elkarrizketak dituzten programak</i>	6,9	8,9
<i>Lehiaketak</i>	11,3	14,6
<i>Programa kulturalak</i>	3,8	1,7
<i>Marraski bizidunak</i>	2,3	4,3
<i>Reality Show-ak</i>	1,4	1,2
<i>Bihotzezko programak</i>	4,7	3,4
<i>Magazine-ak</i>	1,1	0,2
<i>Hizketaldiak</i>	3,7	5,1
<i>Besterik</i>	3,2	1,2


ITURRIA: Kulturaren Euskal Behatokia (2008). *Estatistikak-Kultura ohiturak , praktikak eta kontsumoa.*

Prentsari dagokionez, CIESen 2017ko datuen arabera, *Diario de Navarra* da Foru Erkidegoko paperezko prentsan jaun eta jabe, eta, paperezkoan, *Noticias de Navarra* baino bi bider irakurle gehiago ditu. Nabarmenezkoa da bi hedabideen artekoa aldea nabarmen jaisten dela edizio digitalari erreparatuz gero. Hirugarren postuan *Marca* kirol aldizkaria dago eta navarra.com agerkari digitala laugarren. Antzeko irakurle kopurua dute *Gara* eta *El País*.

Berria eta *Diario Vasco* egunkarien emaitzak nahiko apalak dira eta *El Mundo* parekotsu dabil⁴.

Grafikoa 15. Prentsa irakurle kopuruak Nafarroan, egunkariaren arabera eta milakoetan (2017)

Lanketa propioa




ITURRIA: CIES (2017). *Estudio de la Audiencia de Medios de Comunicación en la C. A. De Euskadi y Navarra*

Mendialdeko datuei erreparatuz gero, ordea, datuak dezente aldatzen dira. Paperezkoan *Diario de Noticias* da lehena, nahiz eta *Diario de Navarra* irakurtzen dutenen kopurua da oso antzekoa den. Zonalde honetan *Gara* indartsuagoa da lehendabizikoekin alderatuta eta *Berria* da hirugarren. Edizio digitaletan daude alderik aipagarrienak. *Diario de Navarra* eta *Berria* egunkariak oso datu baxuak dituzte. *Noticias de Navarra* da edizio digitalean irakurle gehien biltzen dituen komunikabidea eta *Gara* baino bi bider.

Grafikoa 16. Prentsa irakurle kopuruak Mendialdean, egunkariaren arabera eta milakoetan (2017)

Lanketa propioa



ITURRIA: CIES (2017). *Estudio de la Audiencia de Medios de Comunicación en la C. A. De Euskadi y Navarra*

⁴ El Mundo, El País eta Marca komunikabideen edizio digitalari buruzko daturik ez du jasotzen CIEsek.

Aurrekoetan gerta bezala, irratia ren kontsumoan ere aldeak daude Nafarroako kate nagusien eta Mendialdekoen artean. *SER* da lurralde osoan entzule gehien duen irratia, alde handiarekin. Hortik aurrera, Nafarroan *COPE*, *Cadena 100*, *Onda Cero* eta *EuropaFM* irradi generalistak dira entzunenak; jarraian, *RockFM* musika kanala dago eta honen atzetik *Radio Euskadi*, *Euskadi Irratia* eta *GazteaFM*. Mendialdean berriz, esan bezala, *SER* da entzule gehien biltzen duen irratia, baina *Euskadi Irratia*, *GazteaFM* eta *Radio Euskadi* dira segidan eta eta *COPE*, *Cadena 100* eta *Onda Cero* irratiek oso emaitza apalak dituzte.

Taula 3 Aurreko eguneko irradi entzule kopuruak Nafarroan eta Mendialdean, katearen arabera eta milakoetan (2017)

	Nafarroa	Mendialdea
<i>SER</i>	58	22
<i>COPE</i>	48	2
<i>Cadena 100</i>	43	2
<i>RockFM</i>	23	0
<i>MegaStar</i>	2	0
<i>Radio Euskadi</i>	16	5
<i>Euskadi Irratia</i>	12	8
<i>GazteaFM</i>	11	6
<i>Onda Cero</i>	36	1
<i>EuropaFM</i>	33	0

ITURRIA: CIES (2017). *Estudio de la Audiencia de Medios de Comunicación en la C. A. De Euskadi y Navarra*

Internet bidezko kontsumoari dagokionez, CIES eta AIMC erakundeek estatu mailako datuak soilik ematen dituzte eta, beraz, ez dago Nafarroako kontsumoa zehazteko aukerarik (are gutxiago Mendialdekoa ala eskualdekoa). Hortaz, ez dira esanguratsuak ikerlan honen helburuak erdiesteko eta ez ditut hemen argituko. Hala ere, irakurleak interesik badu, aisa aurkituko ditu sarean.

Kulturaren Euskal Behatokiak 2007-2008 urteetan egindako datu-bilketaren arabera, albisteak eta gaurkotasunezko erreportajeak dira irratiko edukirik gustukoenak nafarren artean. Nafarroa osoko eta Mendialdeko datuak alderatuz, kultura eta bestelako edukietan daude alderik nabarmenenak. Gainerakoetan, kopuruak aldatzen badira ere, joera nahiko antzekoa dela esan daiteke. Ikus taula:

Taula 4 Pertsonak, irratzi-programetako lehentasunen arabera, Nafarroan eta Mendialdean, portzentajeetan (2007-2008)

	Nafarroa	Mendialdea
<i>Albisteak</i>	66,6	71,7
<i>Gaurkotasunezko erreportajeak</i>	26,9	28,0
<i>Musika</i>	67,7	72,5
<i>Kirolak</i>	11,8	9,8
<i>Kultura</i>	5,8	8,1
<i>Bidaiak</i>	0,6	1,2
<i>Besterik</i>	9,7	13,4
<i>ED/EE</i>	0,5	0,0

ITURRIA: Kulturaren Euskal Behatokia (2009) *Estatistikak-Kultura ohiturak, praktikak eta kontsumoa*

Azkenik interneten kontsumoari ere tarte bat eskaini nahi diot atal honetan. Izan ere, CIESen Nafarroako audientziaren neurketen arabera, 2017ko azken olatuan eskuratutako datuen arabera, 14 eta 24 urte bitarteko gazteen %95k baino gehiago erabiltzen du internet egunero. Hurrengo adin-tarteetan kopuruak ere altuak dira, %70 eta %90 bitartekoak, 25 eta 54 urte artekoen artean. 54 urte baino gehiago dutenen artean, aldiz, internet egunero erabiltzen dutenen kopurua %30 eta %40 artekoa da. Kontuan izan beharra dago datu hauek Nafarroa osoari dagozkiela eta Mendialdeari dagokionez, ez dagoela adinaren arabera banaketarik.

4.1.2. Tokiko hedabideen kontsumoa.

Tamalez, ez dago tokiko hedabideen kontsumoaren inguruko datu homogeen eta zehatzik, egun ez baitago neurketa sistematikorik; are gutxiago, zehazki eskualde honetako toki hedabideen kontsumoaren neurketarik. Arrazoi ugari aipatu nitzake, baina ez da lan honen xedea horretan sakontzea eta informazioa zabaltzea nahi duenak, jo dezake Tokikom zein Hekimen elkarten azken urteetako txostenetara, besteak beste.

Dena dela, zertzelada batzuk ematearren, Tokikom elkartearen *Euskal hedabideen etxea*, tokikoen *ikuspegitik* txostenean jasotako bi neurketa aipatuko ditut hemen. Alde batetik, Topaguneak Aztiker enpresari neurketa eskatu zion; bere 11 aldizkariren hartzaileen artean egindako ikerketan bi emaitza nabarmenduko ditut.

- Galdetutako etheen % 84ean, toki komunikabidea zen etxean sartzen zen argitalpen bakarra.
- % 86ak toki hedabideen ildo editoriala plurala dela deritzo.

Beste alde batetik, Goienak 2012an egindako neurketan (Aztiker enpresaren bidez), emaitza argiak izan zituzten, azpimarratzekoak dira:

“la herritar guztiek (% 96,8) eskualdearentzat beharrezkoa edo oso beharrezkoa kontsideratzen dute, baita euskara ulertzen ez dutenek ere.

Herritarren gehiengo zabalak (% 71,9) proiektu plural bezala ikusten du, indar politiko edo ekonomikoekiko independente.

Euskara indartzeagatik baino tokiko informazioa eskaintzeagatik da beharrezkoa Goiena herritarrentzat, alde txikiz baina informazio lokala euskara indartzeari nagusitzen zaio.

Euskaraz ezer hitz egiten edo ulertzen ez duten artean edota kide guztiak erdaldunak diren etxeetan irakurlagoa altua da, % 40 ingurukoa.” (Tokikom, 2013: 8 or.)

Argi dago, beraz, lekuan lekuko informazioa lantzeak tokikoei ematen dien berezitasuna. Esparru horretan dira indartsu, inor baino hurbilago daude eta herritarren jarrera eta aktibazioa bere alde dute. Ikuspuntu horretatik, esan daiteke toki komunikabideek euskararen normalizazioan funtzio bakar eta garrantzitsua betetzen dutela.

4.2. Analisi kualitatiboa

Atalaren sarreran azaldu bezala, ikerlanaren bigarren fasean analisi kualitatiboari heldu diot. Toki hedabideen bilakaera zein egungo egoera ezagutzeko komunikabideen arduradunen hitzak jaso nahi izan ditut, euren esperientzia eta bizipenetatik abiatuta, komunikazio eredu aldaketaren aurrean duten ikuspuntu jarrera eta iritziak ezagutze aldera.

Datu-bilketa egiteko, elkarriketa erdi-egituratuaren teknika erabili da. Horrela, ikerlanaren helburuak erdiesteko beharrezko galderak diseinatu dira eta, aldi berean, elkarriketatuari bere ekarpenak egiteko tarte utzi. Gidoi erdi-egituratua erabiliz, gainera, kasuan kasuko berezitasunak biltzeko desbiderapenak egiteko aukera ere izan da.

Gidoiari dagokionez, galderak lau atal nagusitan bildu ditut:

- Hedabidea: bloke honetan sorrerari, egiturari eta finantzazioari buruzko galderak bildu dira.

- Edukiak: jorratzen diren gaiak eta horien aukeraketa nola egiten den, kolaborazioak eta irakurle/entzuleen parte-hartzearen inguruko galderak barne hartzen ditu.
- Komunikazio bide berriak: internet eta sare sozialak hartzen ditu bere baitan.
- Etorkizuna: hedabidearen etorkizuna nola irudikatzen duten galdetu zaie elkarriketatuei, bereziki, komunikabideek bizi duten paradigma berriari dagokionean eta toki hedabideek izanen duten funtzioei dagokienean.

Hiru elkarriketa egin dira: Karrape eta Aralar Irratietako esatari eta arduradunei, Mailope aldizkari arduradunari, eta Leitzaldeko Euskara Teknikariari, Xapo, Miaxiria, Marmari eta Papanoziri aldizkarien koordinatzailea baita.

Elkarriketa hasteko, hedabidearen sorreraz galdetu zaie elkarriketatu guztiei.

4.2.1. Hedabidea.

Eskualdeko toki hedabide guztiek bi mugarri izan dituzte sorreran: herria eta euskara. Batzuk herriko Kultur Taldearen eskutik eta besteak herritar talde baten ekimenez sortu ziren, baina denak euskarari espazio handiagoa emateko nahiak eta herriko gertakizunak kontatzeko eta zabaltzeko gogoak bultzatuta.

1990ean, Mailope sortu zenean, Araitx eta Betelu erdalduntze prozesu betean zeuden; eskolako maisua erdalduna zen, medikua ere bai, errepide nazionalak herria zatitzen zuen eta herritar batzuek horri aurre egin eta aldizkari euskaldun bat sortu zuten, euskara bultzatzeko, hain zuzen ere. 1990an bi zenbaki kaleratu ziren, 1991n lau, hurrengoan sei eta hortik aurrera, hilero. Lehendabiziko ale haiek 4 orrialdekoak ziren eta Araitx-Betelu soilik biltzen zituen, gero 16 orrialde izatera pasa zen. 1994an hasi zen Larraun eta Lekunberrin banatzen. Egun 32 orrialde ditu, 1.600 aleko tirada eta 24 herri hartzen ditu, bi bailara eta lau udalerritan banatuta.

Aldizkaria, urte askoan, auzolanean egin zen, 2004an lehendabiziko kontratazioa izan arte. Duela bederatzi urte inguru, kudeatzen zuen elkarteak aldizkaria komunikazio enpresa baten esku uztea erabaki zuen eta, geroztik, Labrit Multimediak kaleratzen du. Horrek enpresaren baliabide teknologiko guztiak jarri zituen aldizkariaren eskura. Egun, enpresaren bi langile dabilta *Mailopen* lanean; bata Arantxa Mikeo da, kazetaria eta aldizkariaren arduraduna, eta maketatzaileria bestea. Hala ere, ez diote lanaldi osoa aldizkariari ematen, denboraren %40 inguru baizik. Kontatzen duenez, bera lanean hasi aurretik, Sakanako pertsona bat kontratatu zuten eta lana oso gogorra egiten zitzaion, “niretzako, tokiko hedabideetan oso garrantzitsua da bertan lan egiten duen langilea bertakoa izatea; ez da ezinbestekoa, baina errazagoa da”. Izan ere, inguruko jendea ezagutzea garrantzitsua dela

deritzo, kolaboratzaileak bilatzeko, adibidez. Garai batean, herri bakoitzean kolaboratzaile bat izaten saiatu ziren, berri emateko konpromisoa hartuko zuena, “baina oso zaila da”.

Ia hastapenetik hasi zen aldizkaria Nafarroako Gobernuak diru-laguntza jasotzen, baita Beteluko udalarena. Poliki-poliki hasi ziren herriko enpresak sartzen eta publizitatea jartzen. Gaur egun, finantzazioaren zatirik handiena diru-publikotik jasotzen du hilabetekariak; Udalek diru-ekarpenak egiten dituzte eta Nafarroako Gobernuak ere diru-laguntza ematen du. Orain gutxi arte, gainera, Eusko Jaurlaritzarena ere jasotzen zuen. Urte batzuetan euskarazko hedabideek ez zuten inolako laguntzarik jasotzen Nafarroako Gobernuaren eskutik eta Arantxaren ustez, “Eusko Jaurlaritzak esfortzu handi samarra egin zuen berea ez zen probintzia batean euskaraz lanean zebiltzan horiei laguntzeko”. Urte latzak izan ziren *Mailope* aldizkariarentzat, haren esanetan, “Gobernu aldaketa etorri aurreko urte hura izan da, nik uste, Mailopek pasa duen urte kritikoena”. Une batean bi ale gehiago ateratzeko dirua besterik ez zuten kontuan eta herritarrei esker atera zen aldizkaria aurrera: *Ene Kantak* taldekoek kontzertuak egin zituzten, etxe-etxeko diru-bilketak izan ziren eta, oro har, ekitaldi dezente antolatu zen aldizkariari babesa emateko. Orain, ongi ez, baina hain estu ez dabilzanetan ekitaldi horiekin jarraitzea erabaki zuten; “ekimen horiek ere balio dute nolabait herria elkartzeko”, dio Arantxa Mikeok. Harpidedunak ere badituzte, 200 inguru, urtean 50 euroko kuota ordaintzen dutenak. Krisiaren eragina nabaritu bazuten ere, publizitate bidezko diru-sarrerak nahiko egonkorak dira. Egun, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak du pisurik handietan, orain gutxi arte udalak baziren ere, egoera aldatu egin da.

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranon hondar hamarkadan sortu ziren herri aldizkariak, herritarrek bultzatuta, euskararen, herrigintzaren eta kulturaren zabalkunde gisara. Formatu oso antzekoa izan dute beti, 28 orrialde koloretan. *Miatrixia* eta *Papanoziri* bi urtean behin kaleratzen dira, txandaka; *Xapo* eta *Marmari* urtekariak dira. Tirada herri bakoitzeko biztanleen arabera da, etxe zein baserri guztietan banatzen da. *Marmari* aldizkariaren 1.300 ale banatzen dira Leitza (azkena 1.200 alekoa); Aranon, *Xapo*, 360 ale; 250 Areson, *Papanoziri*; eta, azkenik, *Miatrixia*, Goizuetan, 200 ale.

Aldizkari hauek guztiak Euskara Zerbitzuko aurrekontuetatik finantzatzen dira, bere osotasunean. Udalek egiten diote ekarpena Euskara Zerbitzuari eta diru-ekarpen horrekin urte osoko plangintza egiten da, euskararekin lotutako jarduera ezberdinak biltzen dituen; horietako bat da herri bakoitzeko aldizkaria. Ez dago aparteko bestelako diru-iturri pribaturik, ezta publizitaterik ere.

Euskara Zerbitzuak lau aldizkarietan parte hartzen du eta kudeaketaz nahiz koordinazioaz arduratzen da, eduki batzuk idazteaz gain. Bilerak egiten dira herri bakoitzeko kolaboratzaileekin eta horietan adosten da zer eskema izanen duen hurrengo zenbakiak,

baita lan banaketa ere. Aranon ez dago Euskara Batzorde edo talde finkorik, hiru herritar mugitzen dira *Miaxiri* aldizkariaren inguruan, eta beste herritar batzuei eduki espezifikoei kolaborazioa eskatzen zaie. Aresoko *Papanoziri* aldizkarian, ordea, kolaboratzaile talde finkoa dute eta denen artean adosten da eskema zein lan banaketa. *Xapo*, Goizuetako aldizkaria, Kultur Taldeak ateratzen du eta jende talde finko bat izaten da, azken urtean asko moteldu den arren. *Marmari* Euskara Taldeak ateratzen zuen baina taldea desagertu egin zen, eta Euskara Zerbitzuak egiten du gaur egun, herritarren laguntzaz.

Karrape Irratia Kultur Taldearen ingurutik sortu zen, elkarrizketatuak azaldu duenez, eta kanpaina kozkor bat egin zen, herritarrekin batera, irratia sortzeko eta bultzatzeko. Haren esanetan, “euskara bultzatzeko eta euskararen normalizazioari begira sortu zen irratia, gure kultura sustatzeko, herriko berriak eta notiziak zabaltzeko; helburu mordoxka zituen”. Udalak irratigintza ikastaroak antolatu zituen, horietatik bi langile kontratatzeko. Hiru urte eman zituzten bi udal langileek lanean, baina karga ekonomiko handia zen udalarentzat eta beste era batera planteatzea erabaki zuen. Tarte batez itxia egon zen, euskaltegiak hartu zuen arte. Azkenik, udalak lizitazio bidez esleitzea erabaki zuen eta, gaurdaino, aldiro-aldiro lehiaketa deialdia egiten du. Geroztik, 18 urte daramatza Unai Zabaletak esatari lanetan, aurreko urteetan ordezkapenak egiten eta euskaltegiaren bitartez herriko irratiari lanean aritu bazen ere. Langile bakarra da eta dedikazio osoa ematen dio irratiari, astelehenetik ostiralera hiru ordu eta erdiz emititzeko. Zorionez, berak aipatu bezala, kolaboratzaile asko ditu eta eskertzen du, musu-truk auzolanean aritzen baitira. Laguntzaile gehienak herrikoak dira, baina badira kanpokoak diren kolaboratzaileak, gai bereziren batean adituak direnak, esaterako, liburuzaina, gizarte-zerbitzuetako laguna, sexologo bat, psikologo bat, zakur-hezitzaile bat eta beste asko. Esatariaren ustez, jendeak badaki herri hedabideek zein errealitate duten, nola bizirautean duten, eta, enpatia horri esker, kolaboratzeko eskaeretan baieztatu asko jasotzen ditu. Hala ere, oporretan joaten denean, udan, irratia itxi egiten da.

Aralar Irratiari dagokionez, herritar talde baten eta udalaren ekimenez sortu zen 90eko hamarkadan, Martin Juanena esatariaren hitzetan, “hemen, batez ere Lekunberrin, 1991n oso galduta baitzegoen (euskara)”. Hori dela eta, euskara sustatu eta hizkuntza-ohituretan eragiteko helburuarekin sortu zuten irratia.

Udalak langile bat kontratatatu zuen, baina ez zuen lortzen herriarekin konektatzea, eta utzi egin zion. Bailarako herritar berriak bat bilatu zuten, eta hala hasi zen irratiari, orain 20 urte baino gehiago, Martin Juanena. Lau urtez laguntzaile bat izan zuen, lanaldi erdian; gaiak lantzen zituen eta Martinek egiten zituen esatari lanak. Baina kostuak gora egin zuen nabarmen, 52.000€ inguruko aurrekontua izan arte eta zaila zen hura mantentzea. Hala ere, aipatu behar da ez zela arrazoi horrengatik kaleratua izan, berak utzi zuen lana eta beste inor ez kontratatzea erabaki zuten. Orduz geroztik bakarrik dago eta azken urteetan, oporretan joan denean, irratia isildu egin da; baina, aurten, berriz ere esatariaren oporrak

ordezkatzeko kontratazioa abiatu da. Herri guztietan du irratia berri-emaile bana, baina jende heldua izan ohi da eta erdiak galdu ditu dagoeneko; ez ditu berritu, zaila da, “orain denek lan egiten dute” eta euskara teknikariarekin lankidetzan saiatzen ari da informatzaile sarea berritzen.

Finantzazioari dagokionez, egun 25.000€ inguruko aurrekontua du *Aralarrek*. Lekunberrik dauka irratia titulartasuna, baina Larraun, Aritz eta Beteluko udalek ere egiten dute diru-ekarpena. Azken hauetako bakoitzak 1.500€ ematen dizkio irratia, Nafarroako Gobernuak 5.500 euroko diru-laguntza ematen du eta beste 15.000€ inguru Lekunberriko Udalak jartzen du. Garai batean publizitatea ere diru-iturri izan zen, baina gehiena kanpotik etortzen zen eta bide hori alderatu zuten. Martinen esanetan “irratia mantentzen dute hemengo kontribuinteek, zergaren bitartez ordaintzen dutenak eta, beraien kontrako publizitatea zen”. Horrez gain, hori kudeatzeko beste pertsona bat beharko litzatekeela gehitzen du eta “hura ordaintzeko publizitate adina egitea oso zaila da hemen”. *Aralar Irratia* udalak mantendu duela nabarmentzen du, “zerbitzu publiko gisa, ez horrenbeste hasierako asmo horrekin”.

4.2.2. Edukiak.

Arantxa Mikeo hilabeteko lehen astean biltzen da *Mailope* aldizkariaren kolaboratzaileekin, erredakzio bileran. Hor hartzen dituzte edukiei buruzko erabakiak, herrietako festen eta bestelako aurrez ikusitako ekitaldiak aintzat hartuta. Bileran gai-taula definitzen da eta horrekin martxan jartzen da kazetaria: kolaboratzaileekin harremanetan jarri, elkarriketak bilatu, etab. Hilabetearen hirugarren astean maketatzen da eta inprentara bidali aurretik zuzendaritza taldeak errepasatzen du, goitik behera. Ikasturte hasierarekin batera, urtero, balantzea egiten dute eta atalak berritzen saiatzen dira.

Politika edo ekonomia bezalako gaiak noizean behin landu izan badira ere, orokorrean kultura eta gizarteari lotutako gaiak jorratzen dira. Gai historikoak ere landu izan dira, beti ere, eskualdeko herriekin lotua. Elkarriketatuak dionez, oso aldizkari anitza izaten saiatzen dira, “ematen du ezetz, baina herri txiki hauetan beti dago zer kontatu”. Ekitaldi gehienak udalerrri handietan antolatzen dira, Lekunberrin eta Betelun, hain zuzen; baina herri txiki asko daude bailaran eta horietako berriak azaleratzea izan da beti erronka.

Atal batzuk, lau inguru, kolaboratzaile finkoen lanarekin betetzen dira, *Elkarri mokoka* eta *Luze zabalean*, besteak beste. Bestalde, eskualdeko kolektibo sozialekin harreman estua du aldizkariak, euren gaiak eta ekitaldiak bidaltzen dituzte aldizkarira, eta *Mailopen* haiei tarte egiten saiatzen dira beti. Tarteka, herritarrek ere proposatzen dituzte gaiak, salatu nahi dituzten gaiak azaleratzeko eskaerak izan ohi dira, hilabetekaria beti egon baita herriari oso lotua. Ildo horretatik, norbanakoen parte-hartzea handia izaten da, atal batzuetan bereziki,

hala nola, iritzien atala, zorion-agurrak eta iragarki-taula. Azkenik, elkarrizketatuak uste du udalentsat tresna oso baliagarria beharko lukeela, eta batzuek etekina ateratzen diotela, baina beste batzuek ez. Arantxa Mikeoren esanetan, “errespetuz eginez gero, ideologia eta iritzi guztiek dute lekua aldizkarian”, herritarrentzat informazio interesgarria zabaltzea den heinean.

Oro har, gaiak eskusiboki sortzen dituzte *Mailope* aldizkariarentzat eta ez dute inguruko beste hedabideekin kolaboratzeko ohiturarik, “gu hilabetekaria gara eta bera egunero dago, denbora ezberdinetan mugitzen gara, baina ongi egonen litzateke gure artean gehiago kolaboratzea”.

Aldizkaria euskara hutsez argitaratzen da, “hasiera hartan helburu nagusia zen euskara sustatzea, eta hori beti mantendu da hasieran bezain indartsu” dio Arantxa Mikeok; eta jarraitzen du, “askotan jaso ditugu, adibidez, bi hizkuntzatan publikatzeko eskaerak eta ezetz esan dugu, ez dira ezta bost minutu ere gastatu batzarrean hori eztabaidatzen. Hori ez da inoiz zalantzan jarri”.

Orain urtebete zonaldeko euskalkien presentzia handiagotzeko erabakia hartu zuten, bertako euskara sustatzeko ahalegina egite aldera, “galdu ez dadin”. Orain artean, oso presentzia gutxi izan dute euskalkiek aldizkarian eta galtzen ari diren sentsazioa dute. Zaila izan zen, ez baitago euskalkian idazteko arau edo irizpiderik, eta, errespetu handiz, Arantxa Mikeok hartu zuen bere gain lan hori; adineko jendeak eskertu du, bereziki, ekimen hori. Aintzat hartu behar da helduei kosta egiten zaiela euskaraz irakurtzea, are gehiago, euskara batuan. Beti ere, naturaltasunez eta edukiaren arabera erabiltzen dute bertako hizkuntza ala estandarizatua, “ale batzuetan ez du apenas presentziarik, elkarrizketatuak euskara batuan egiten duelako eta hori errespetatzen da”

Leitzaldean, herri bakoitzak bere aldizkaria egiten du bertako kolaboratzaileen laguntzaz, baina “beti, oinarria da euskara eta herria” azpimarratzen du Kristina Urrutia Euskara Teknikariak. Atal gehienak finkoak dira, erreportajea eta euskarari lotutako artikuluren bat, herriaren ekimenak biltzen dituen dira nagusiak, “beti bada propio herrian landu den edo hemerrotekari begira garrantzitsua den jardueraren bat edo dataren bat”. Herri kirolak, esaterako, garrantzi eta interes handiko gaia da zonaldean eta aldizkarian jorratzea erabaki zuten. Baina oso zabala zen, eta herri bakoitzak beretik heldu zion; *Marmarik* aizkolariak izan zituen erreportajearen ardatz, *Papanozirik* sokatira, etab. Ohiko gaiak izaten dira kanpoan dauden herritarren bizipenak kontatzen dituzten elkarrizketak eta artikulak, inguruetako bazterrak erakusten dituztenak, baita garai batean herria nolakoa zen eta orduko ohiturak ere. Kolektibo sozialekin elkarlanean aritzen saiatzen dira, beti ere, gaiak herriari lotuz.

Urtekari edo bi-urtekari izatean, zorion-agurrek eta halakoek ez dute tokirik eta, beraz, irakurleekin ez dago hartu emanik, argitaratutakoaren inguruko iritzia jasotzeaz gain.

Karrape Irratian programazio finkoa dute. Unai Zabaletak ikasturte osoa planifikatzen du, kolaboratzaile finkoei bere tarte emanaz; horrez gain, astez aste, bost egunetako eskaletak eginak izaten ditu. Hala ere, beti uzten ditu hutsune batzuk egunean egunekoa, gaurkotasuna, sartzeko. Inguruko herrietako berriak ere ematen ditu, haiekin harremana indartu eta bultzatzen duelako, “irratia bozgorailua da”. Hala ere, herriko berri, ekintza eta ekitaldiez aritzea da entzuleek gehien estimatzen dutena, bere ustez.

Euskara hutsez emititzen du, irratia sortu zenetik argi zuten hala izanen zela. Unairen ustez, herriko euskalkian aritzeak gertutasuna ematen dio, hurbilekoa egiten zaio entzuleari.

Elkarrizketatuaren esanetan, “jendeari kosta egiten zaio parte hartzea, segun eta zertarako irekitzen duzun mikrofonoa”. Zorion-agurrak eta lehiaketa atalek jasotzen dute herritarren parte hartze mailarik altuena, “hor ez duzu zure burua konpromisoan jartzen, ez duzu zure iritzia ematen, ez duzu zure burua jende aurrean jartzen”. Herri txiki batean bizitzeak muga horiek ezartzen ditu Unai Zabaletaren ustez, hau da, jendeak iritzi eta jarrera pertsonalen esposizioa saihesten duela. Ez da ohikoa entzuleek gaiak proposatzea, tarteka, modu informalean, interesekoak izan daitezkeen gaiak proposatzen badizkiote ere.

Inguruko hedabideekin duen erlazioaz galdetuz, harreman bete-betekoa du Aralar Irratiarekin, egunero konexio labur bat egiten dute bi irratietako esatarien artean gaurkotasunezko gaiak jorratzeko. Euskal Herria irratiarekin ere oso harreman zuzenekoa du, “20 urte baino gehiago daramatzat kolaboratzaile lanak egiten”. Kronikak trukutzen dituzte, Iruñerrikoak Leitzaan ematen dituzte, eta alderantziz ere bai. Herrian interes handikoak izan daitezkeen materialak ere trukutzen dituzte, sona handiko pertsonekin elkarrizketak, esaterako.

Aralar Irratiko esatariak kontatzen duenez, “musika asko sartzen dut, egia esan, alaitasun handia ematen du, festa giroa. Musika sartu beharra duzu, gainerakoan zaila da”. Programazioa ez dago erabat itxia, astez aste erabakitzen du Martin Juanenak, “astelehena dugu programatuena (...) Handik aurrera, zer sortzen den, non dagoen albiste, nor ekarri genezake kontatzeko zer edo zer interesgarria daukalako”. Pilota, herri kirolak eta eguneko berriak izaten dira ohiko gaiak. Elizari tarte handia eskaintzen diote, herriko kolaboratzaile baten eskutik. Elkarrizketatuak adierazten duenez, “egunero elkarrizketa bat lortzea, hori da betiko erronka eta, nik uste dut, lanik handiena hemen”. Zorion-agurrak izaten ditu eta, lehiaketa bat ere bai, herriko ostatu eta merkatariek eskaintzen dituzten sariak banatuz. Hala ere, nabarmentzen du gaur egun entzuleek erantzunak interneten bilatzen dituztela, eta berehala asmatzen dituztela, “erraztasunak eta arazoak, biak batera, sortu zaizkit”. Gainerakoan, normalean, entzuleek ez dute gairik eskatzen edo proposatzen.

Egunero egiten du kolaborazio labur bat Leitzako Karrape Irratiarekin, gaurkotasunezko berriei aritzen dira solasean bi esatariak. Aspaldiko harremana du Euskal Herria Irratiarekin; Izan ere, 20 urtetik gora daramatza haiekin kolaborazioan, “kasik ohore bat iruditzen zait ematea 15 minutu astelehenero kirol-kronika egiteko eta iruditzen zait; Iruñean 15.000 entzule dituen irrati baterako egotea, nire hitza han jartzea, satisfazio ikaragarria da, ez da inolako ahalegina”.

Bestelako gaiak ere jorratzen dira, udaletxeko bilerak, konparazio baterako. Irratiko ateak beti zabalik ditu udalentsat. Bera zinegotzia da eta biltzarrek eman dutena irratiari kontatzeko aprobetxatzen du, herritarrentzat interesgarria izan daitekeelakoan. Bera zinegotzia da eta aprobetxatzen du biltzarrek eman dutena irratiari kontatzeko, “ahal den hobekien kontatzen saiatzen naiz, alderdikeria izan dezake han dagoen batek, baina ez nuke erori nahi tranpa horretan; erortzen baldin banaiz, etorri erreplika ematera, etortzeko lasai”. Nabarmentzen du irratiari ateak beti zabalik dituela edonorentzat, bereziki, udal eta alderdi guztietako zinegotzientzat. Udaletxean Berdintasun Teknikaria izan zen aldiari ere, garatzen zen gaia, baina nahiko gatazkatsua zela aipatzen du esatariak, “txoke handia izandu da, batzuetan, gai hori jorratu dugunean”.

Aralar Irratiak euskara hutsean emititzen du beti, “Alkateak bakarrik izan du irratiari herriari erdaraz mintzatzeko pribilegioa”. Euskalkiari tarte handia eskaintzen dio, esatariaren esanetan, naturaltasunez egiten dute, norberak bere euskaran aritzen da.

Azkenik, Martin Juanenaren esanetan, audientziak askoz ere hobeak izaten dira negu partean, “euria, elurra eta giro txarra dagoenean”.

4.2.3. Komunikazio bide berriak.

Aztertutako hedabideetatik bat bakarra ere ez dago sare sozialetan. Arantxa Mikeok azaldu duenez, “askotan planteatu dugun kontua da hori”. Baina zailtasun bat azaltzen du kazetariak: sare sozialetan oso garrantzitsua da konstante eta aktibo izatea eta hilabetekaria izateak hori mugatzen du; gaiak zapaltzeko erraztasun handia dago, alegia. Bete faktore bat ere aipatzen du, inbertsioa. Izan ere, ekonomikoki ez da inbertsiorik ezta baliabide berezirik behar, baina denbora behar da, dedikazioa, hain zuzen ere.

Orain dela sei bat urte ISSU kontu bat zabaldu zuten eta, geroztik, aldizkaria PDF formatuan igotzen dute sarera; elkarrizketatuaren esanetan, “hori bai jendeak eskertzen duela, batez ere, atzerrian edo hemendik kanpo dabiltzan horiek”.

Aurten, gainera, mailope.eus ataria martxan jarri dute. Ez da eguneroko berriei elikatzen den ataria, baina paperezko edizioan tokirik ez duten argazkiak igotzen dituzte, eta emeki-emeki azken urteetako ekitaldietako albumak osatzen ari dira, irakurleen eskaerari

erantzunez. Bazkidetza sustatzeko ere aprobetxatu nahi dute webgunea eta herritarrei parte hartzea errazteko: zorion-agurrak, iragarkiak eta dena delakoak formulario labur baten bidez bidaltzeko aukera ematen du interneteko atariak. Blogarien atala ere sortzen ari dira, aldizkarian publikatzen denaz gain, kolaboratzaileek tarte bat izan dezaten, “ideia ontzen ari gara”. Mailope.eus sortzearen beste helburuetako bat da bere eremutik kanpora ezagutzero ematea *Mailope* aldikaria, eta, horren bitartez, bailara ezagutaraztea. Duela gutxi jarri dute martxan, beraz, bisitari kopurua ez da adierazgarria, baina badute aurrerantzean neurtzeko asmoa.

Hala ere, Arantxa Mikeok uste du irakurleek nahiago dutela paperezko bertsioa eta sare sozialez zein internetek beste funtzio bat bete beharko lukeela, izan ere, “gure irakurleen zati handi bat ez dago oraindik mundu digitalizatu horretan”.

Leitzaldeko aldizkarien arduradunak ez zuen buruan sare sozialen gaia, “egia da ni neu ez naizela jarri horrelako lanetan” dio Kristina Urrutiak, eta gehitzen du “hori igual izan zitekeen bestelako iritziak jasotzeko aukera ona, horrelako beste bide bat irekitzea; agian jorratu beharko genuke”. Interneti dagokionez, Ipar Mankomunitatearen atarian PDF formatuan eskuragarri jartzen dituzte zenbaki guztiak.

Hala ere, nabarmentzen du sare sozialak osagarri ikusten dituela, ez duela aldizkaria irudikatzen paperezko bertsiorik gabe, “banatzen da etxe guztietan eta baserri guztietan; bada perfil bat ez dena sare sozialen erabiltzaile, eta galduko luke”.

Karrape Irratiko Unai Zabaleta bide hori jorratzeko modurik hoberena mamitzen ari da, “hurrengo ikasturtetik aurrera fronte hori zabalduko dut, sare sozialena, eta *online* entzuteko aukera ere izanen da”. Esatariak dionez, entzule askok eskatzen dute aukera hori izatea “eta uste dut 2018an, logikoa ez, beharrezkoa dela”. Blog bat ere egin nahi du, saioak osorik edo zatika zabaltzeko, horrek aukera ematen liokeelako askori nahieran entzuteko. Hala ere, azpimarratzen du pausoka egiteko bidea dela, “mantso-mantso hasi nahi dut eta poliki-poliki elikatzen joan”.

Aralar Irratian orain urte batzuk saiakera egin zuten, Twitter sare sozialean profila zabaldu, baina egun ez ditu batere lantzen. Internet bidez emititzeko saiakera ere egin zuten, baina Martin Juanenak errespetua dio edonon eta edonork entzun ahal izateari, sor ditzakeen arazoengatik, eta nahiago du betiko eremuan aritu.

4.2.4. Etorkizuna.

“Tokiko hedabide batean oso zaila da etorkizuna irudikatzea” dio Arantxa Mikeok, “pentsa, orain dela 3 urte aldizkaria itxiko genuela pentsatzen genuen”. Bide beretik joanen dela uste du, “ez ditugu oso helburu anbizioak”.

Hala ere, bere ustez, gaiei dagokienean, erronka bat dute tokikoek: balore eraldatzaile izatearena, LGTBI kolektiboa, genero berdintasuna eta antzerako gaiak lantzerakoan.

Bestalde, tokiko hedabideak herrietako ondarea jasotzeko eta transmititzeko tresna garrantzitsua direla azpimarratzen du. Herriak, ohiturak eta bizimodua aldatu egin da, “gaur egun gauza asko ez ditugu berdin bizitzen eta ondare hori jasotzea eta transmititzea gaurkoei, belaunaldi gazteagoei, inportantea iruditzen zait”. Izan ere, aspaldiko gertaeren testigantzak eta bizimodua jasotzeko tresna bat dira, baita hizkuntza eta bestelako ondare kultural immateriala jasotzekoa. Funtzio soziolinguistikoa ere aipatzen du kazetariak, azken finean, “euskalkian eta euskalkiari buruz ari gara”. Labur esanda, Arantxa Mikeoren hitzetan, “gure bailararen historia da eta hemeroteka paper hori betetzen du”.

Mailope aldizkariaren beste funtzioetako bat herritarren arteko harremanak sendotzea izan da, “asko lagundu du goiko eta beheko bailaren arteko harremanak leuntzen; hala ere, Azpirozko aldapa horrek asko bereizten du”. Bestalde, herriko euskaltegian eta eskolan ere erabiltzen dute hilabetekaria klaseetan.

Kristina Urrutia Euskara Teknikariak ere bide bertsutik jarraituko dutela uste du, baina egokituta: “segur aski sare sozialak izanen dituzte osagarri, baina paperean segituko dutela iruditzen zait eta, zenbait zentzutan, modernoagoak izanen direla” (maketazio aldetik, bereziki).

Etorkizunari begira, zalantza handia sortzen zaio *Miaxiria* aldizkariarekin, “oso jende gutxi dagoelako, ez delako erreleborik etortzen; daudenak urte asko daramatzate, normala den bezala, erreta, ezinean... erreta baino, nekatuta, eta ez da erreleborik etortzen”.

Teknikariaren ustez, denak zu zeresana, Arano herri txikia da eta “hirukote hori bera dago *Miaxiria* aldizkarian, besta batzordean, inauterietan, guraso elkartean, udaletxean, denetan”. Bide horretatik, herri indarra desgastatzea da arrisku nagusia elkarriketatuen ustez, “arriskua ikustea bezalakorik ez dago jendea mugiarazteko”, baina aldizkaria ez ateratzeak beldurra ematen dio, “prezedentea sortzea eta hurrengorako ere lasaitzea”, alegia; eta gehitzen du “herritik ez bada sortzen, Euskara Zerbitzuak atera beharko du agian, baina ez da gauza bera”.

Bere ustez herri bakoitzak bere aldizkaria mantentzea oso garrantzitsua da, “bertakoa delako, kontatzen dituenak hemen duelako kabida; ez duelako lekuri beste hedabideetan”. Gertakari garrantzitsuren bat izanez gero, bestelako hedabide batzuetan agertzen da, “baina ez lau orrialdeko erreportajea”. Izan ere, herri aldizkaria “bada gure nortasunaz, gure tradizioaz eta gure kontu horietaz hitz eginen duen toki bat eta herrian sortzen dena, herriari emanen diona bueltan, formatu honetan”.

Leitzako irratiko esatariak, aldiz, honakoa dio: “dudak ditut ez dakidalako irudikatzen dudan; tokiko hedabideen etorkizuna ez dakit nolakoa izan daitekeen”. Eta gehitzen du: “hau, gaur egun, udal irratia da, udalak finantzatzen du, zorionez. Orain, Nafarroako Gobernua aldatu zenetik diru laguntza txiki bat ere jasotzen du, ez garai batean jasotzen zen adina, hori ere esan behar da (...). Baina, udalarentzat defizitarioa izaten jarraitzen du, gertatzen dena da udalak apustu egiten duela irratia aldatzeko eta urtetan egindako lanaren ondorioz, herrian irratia normalizat hartzen da, irratia eguneroko bizitza da askorentzat eta askorentzat. Horren adibide da oporretan joaten naizenean, itxi egiten da, jendeak noiz itzuliko naizen galdetzen dit (...). Gehiago irudikatu izan dut Mendialdeko irratia sakon, sendo bat, fuerte bat”. Oso zaila dela onartzen du, kontu ekonomikoak, kudeaketa eta herrien arteko ezaugarri ezberdinak direla eta. Hala ere, horrelako formatu bat eramangarriagoa izan daitekeela uste du. Finantzazioari dagokionean, Unai Zabaletak ez du zalantzarik: “hemen, azkenean, borondatea apustu garbia da eta udalak orain arte apustu hori egin du. Udalak apustu hori egiten jarraitzen duen bitartean, irratia izanen da. Holaxe da, argi eta garbi”.

Martin Juanenari gustatuko litzaioke “irratia fresko bat, unifikatua, eta gazte jendea etortzea”. Esatariari urte gutxi batzuk falta zaizkio erretiroa hartzeko, “nire partez etortzen denak izan dezala abilezia komunikatzeko jendearekin, lortzeko gantxo hori eta jarraipena izan dezan”. Garai batean ostiral arratsaldetan gazte talde bat joaten zen irratira saio bat egitera eta larunbatetan umeentzat egiten zen; “horiek denak, nik uste dut, hemendik hamar urtera ere ekarri beharko direla eta etorri beharko dutela, eta ni beti egonen naiz dispuesto kolaboratzeko. Nire sekzioa, helduentzat, hain erraz maneiatzen dudana, etorriko nahiz nahi badute eta lagunduko diet, baina beste *boom* bat beharko du eta hori etorriko litzateke irratia kontsentsuatu batetik”.

5. Ondorio eta hausnarketak

Ikerlanaren emaitzek Aralar Iparraldeko tokiko hedabideen egungo egoeraren argazkia eskaini digute. Horiek abiapuntu hartuta, hainbat ondorio eta etorkizunerako zenbait erronka azalduko ditut atal honetan.

Datuak, askatu ezinezko korapiloa

Lan honen lehen ondorio argienetako bat da, hain zuzen ere, datu-bilketa sistematiko eta estandarizatuen beharra. Izan ere, marko teorikoan azaldu bezala (ikus 3.4. atala) euskararen ezagutza zein erabilera neurtzeko eskualdean eginiko azken datu-bilketa 2001ekoa da. Tokiko hedabideei dagokienez, ez da horien kontsumoaren inguruko neurketarik egin.

Alde batetik, euskararen lurraldeak hartzen dituen eremu administratibo ezberdinek zaildu egiten lan hori eta, bestetik, tokikoek hartzen duten eremu txikiek ez dute baliabiderik neurketa zorrotzak egiteko. Egun, Tokikom eta Hekimen erakundeek hartu dute ardura hori euren eginkizunetan, baina, nagusiki, bazkide diren hedabideen kontsumoaren inguruko ikerlanak egiten dituzte. Aurrerapausoa da, zalantzarik gabe, baina tokiko guztiak ez dira elkarte horietako partaide eta, hortaz, neurketetatik kanpo geratzen dira. Ikerlan honen unibertsoa osatu duten hedabideen artean, esaterako, *Mailope* da erakunde hauetakoren baten bazkide den bakarra. Bestalde, Gaindegia eta Behategia berriki sortuak dira, eta denbora beharko dute datu-bilketa sistematizatu eta, batez ere, burutzeko.

Beraz, badirudi, euskarazko hedabideen sektorea mugitzen ari dela bide horretan eta oinarriak ezartzen doazela, baina gaur egun oraindik ez da egitate eta beharra nabarmena da.

Diru-laguntzak, txanpon beraren bi alde

Analisi kualitatiboan ikusi bezala, erakunde publikoen laguntza da diru-iturri nagusia, bakarra ez denetan. Udalen ekarpenekiko dependentzia erabatekoa da eta, maila txikiagoan, baina oso garrantzitsuak dira Nafarroako Gobernuaren zein Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak.

Udalen toki hedabideen aldeko apustuak sortu zituen bere garaian eta mantendu ditu bizirik gaurdaino. Krisi ekonomikoaren garai latzenetan ere haien ekarpenak mantendu dituzte eta ez dago arrazoirik pentsatzeko etorkizunean hala izango ez denik. Dena dela, finantzazio eredu hori oso arriskutsua da, horren adibide dugu *Mailope* aldizkariak orain hiru urte pasatako kinka larria eta inguruko beste bailaratan; Sakanan *Beleixe* irratiak astean bi ordura murriztu behar izan zuen bere jarduna eta Baztanen *Xaloe Telebistak* emisioa moztu behar izan zuen. Ez dira bakarrak, baina bai aski ezagun eta adierazgarriak.

Zenbait hedabidek badituzte bestelako diru-iturriak (bazkidetzak eta publizitatea, esaterako) eta herritarren babesa ez da soilik morala, ekonomikoa ere bada. Horren adibide argia dira tokikoen sorrera, herri ekimenetik, eta momentu estuetan emandako erantzuna, *Mailope* kasu. Diru-sarrera horiek arnas hartzen laguntzen dute, hedabideok sortzen lagundu zuten moduan, baina ez dira nahikoak epe luzean komunikabideak martxan mantentzeko.

Irtenbide zaileko afera da, dudarik gabe. Izan ere, herri txikiak dira, hau da, merkatu txikia eta mugatua duten hedabideak dira; gainera, doakotasuna ikur izan dute beti. Ikuspuntu horretatik abiatuta, utopikoa litzateke hedabide ekonomikoki independenteak irudikatzea. Hori baino errealagoa eta egingarriagoa litzateke beste laguntza eredu bat planteatzea, urtez urteko deialdiak gainditu eta epe motzerako egonkortasuna eman dezaketen hitzarmen-markoak, besteak beste.

Herritarra, toki hedabideen muina

Ikerlanaren unibertsoa osatu duten toki hedabide guztien sorreran herritarrek izan dira, hala nola, horien euskara bultzatu eta sustatzeko grina. 1990ean eskualdea erdalduntze prozesu betean zegoen, eta euskararen galera bistakoa zen herritar askorentzat. Testuingur horretan, hizkuntza gutxituarekiko atxikimenduak bultzatuta sortu ziren herri aldizkari zein irratia eta, ikusi dugunez, denboran aurrera ere horien karga emozionala nabarmena da. Herriak sortu eta elikatzen ditu hedabideak, kolaboratzailek egiten duten lanaren bitartez, esate baterako. Baliteke kolaboratzaile hauetako asko Sánchez Carriónen teoriaren arabera “hiztun osoak” ez izatea, baina dudarik gabe, hizkuntzaren aldeko eragile aktiboak dira eta hiztun-komunitatearen muinean kokatzen ahal dira. Herritar hauek dira hiztun-komunitatearen gune-sinbolikoa osatzen dutenak eta komunitatea trinkotzen laguntzen dutenak.

Euskararen aldeko hautua argia da, bai tokikoen aldetik, herri administrazioenetik, bai herritarren aldetik ere. Baina ez hori bakarrik, herriko hizkuntza-ondarea zein -kulturala jaso, transmititu eta zabaltzeko tresna dira eta horren babes irmoa egiten dute hedabideek zein horien inguruko eragileek.

Ditugun datu soziolinguistikoei erreparatuta eta eskualdeko haur (ia) guztiak D ereduan eskolatzen direla aintzat hartuta, euskararen ezagutza altua izaten jarraituko duela deduzitu dezakegu eta, alde horretatik bederen, tokikoek bermatua dutela inguruaren babesa.

Dena dela, lurraren muina sutan den bezala, hedabide hauen muineko sugarrak sute bihurtzeko arriskua ere badute. Euskaingintzan zabaltzen hasia den ideia bat datorkit burura: ez ote gatzazkio herriari gehiegi eskatzen ari? Herritarrek egiten dute euskararen aldeko aldarria, haiek salatzen dituzte hizkuntza-eskubideen urraketak, haiei eskatzen diegu euskaraz bizitzeko ahalegina, horrek dakartzan esfortzu guztiak bere gain hartuta. Zenbait lekutan, kolaboratzaileen nekea hasia da nabaritzen, Aranon edo Areson, kasu. “Txepetx”en zirkulu zentrokideen irudiari helduta, herritar hauek ertzera goko zirkuluetara mugitzeko arriskua dago; bestela esanda, gune-sinbolikoa eta euskararen bizindarra ahultzeko bidean jartzekoa, alegia. Halako egoeren aurrean bide eta estrategia berriak jorratzea ezinbestekoa izanen da, berandu baino lehen.

Internet, itsaso zabala

Deigarria da egun toki hedabideek sarean duten presentzia eskasa. Egia da aldizkari guztiak daudela eskuragarri PDF formatuan, baina bestelakorik ez izatea esanguratsua dela iruditzen zait.

Karrape Irratia da aurreratuen arlo honetan, egun egiten ez badu ere, bidean dago eta. *Aralar Irratia* ez du planteatu ere egiten, epe motzean behintzat, teknologia eskaintzen dizkion aukeraz baliatzea, onura baino arrisku gehiago dituelakoan. Kasu honetan, erreleboak haize freskoa ekarriko duelakoan nago, agian, baita berrikuntza ere.

Mailope ere hasia da gaia jorratzen eta irakurleekin bi aldeko komunikazioa errazteko bideak zabaltzen.

Lan honetan ikusi dugun moduan, teknologia berriek gure gizartean eta egunerokotasunean hartu duten espazioa izugarria da. Ikusi dugu ere, albisteak ez ezik, entretenimendua ere gero eta gehiago sarean bilatzeko joera. Ukaezina da eremu horretan egoteak eta leku hartzeak duen garrantzia, areago, beste inor baino lehen iristeak ematen duen indarra. *Arrasate Press* eta *Goiena Multimedia Taldea* dira horren adibide argi.

Sektorean indarrak batzeak eta bide berriak elkarri babesturik jorratzeak oso garrantzitsua izan daiteke gure testuinguruan. Eskualdeko irratietako esatariek eskualdeko irradi sendo eta indartsuaz mintzatu dira. Aldizkarien arduradunek ez dute hain argi ikusten, baina inguruan baditugu eredu arrakastatsu. Eskualdeko irratia ideiatik abiatuta, eskualdeko aldizkaria ere irudikatzen dut nik, gaurkotasunezko albisteak zabalduko dituen eta maiztasun handiagoa izanen duena. Gaurko aldizkariak horren osagarri itzelak lirakeke, herri bakoitzeko gaiei espazio handiagoa eta sakontasuna eskainiz. Hala, lan honen hasieran aipatutako *amaraun-sarearen* antza hartuko luke eskualdeko hedabideen egiturak zein osagarritasunak.

Beraz, kazetaritzaren paradigma aldatzen ari den garai honetan, Aralar Iparraldeko hedabideek ez dute estrategia argi, komun eta landurik. Baliabideen aldetik ere, eskas dabilta, gainera. Digitalizaziorako jauzia ez da garestia baliabide teknologiko eta inbertsio ekonomikoaren aldetik; bada, ordea, kontuan hartu beharreko beste aldagai bat, denbora. Izan ere, baliabide teknologikoak eskuragarriak eta doanekoak badira ere, konstantzia eta dedikazioa ezinbestekoak dira; giza-baliabideak, alegia. Eta horixe da, hain zuzen ere, ikerlanaren analisi kualitatiboan ikusi dugun bezala, tokiko askoren zailtasunik handiena.

Tokiko aldizkarien kasuan, papera euskarri ezinbestekoa da eta hala izaten jarraituko duela esan daiteke. Internet eta, bereziki, sare sozialak, osagarriak izanen dira eta herritarrekiko harremanak are gehiago hurbiltzeko oso baliagarriak izanen direlakoan nago. Bada, irratiek ere egin beharko dute bide hori. Egia da audientziaren zati bat (zenbaitetan handia, gainera) digitalizatu gabekoa dela, baina egunean-egunean tresna berezkoagoak ditugu sakelakoa, tableta eta *smart* telebistak eta beste hainbatetan bezala, tokiko hedabideak jendartearen beharretara moldatuko da. Izan ere, jendarteak sortu zituen eta bizirik mantendu ditu gaurdaino; aurrera begira ere, beharrezko deritzen artean, bizitan mantenduko dituztelakoan nago; sugarren indarrak erretzen ez baditu, bederen.

Tokikoak, Aralar Iparraldearen hemeroteka

Sakontze-egitasmo honen helburuetako bat zen euskarazko hedabideek etorkizunean jokatuko zuten papera zehaztea. Bada, hastapenetatik bezala, herritarren arteko harremanak hurbiltzen eta euskaratzen egindako lanari eutsiko diote, ikusi dugun moduan, sortzez, harreman-sareak eta talde-nortasuna indartzeko funtzioa berezko dutelako. Hala ere, bada betetzen duten beste funtzio garrantzitsu bat, eta espero ez izanagatik, lan honen marko teorikoak barne hartzen ez duena.

Luze zabalean sarri aipatu da lan honetan “ondare” hitza, ez alferrik. Aztertutako hedabideek urte hauetan guztietan sortutako materiala anitza da oso: elkarrizketak, erreportajeak, argazkiak... zerrenda amaigabea litzateke; gerra garai eta osteko testigantzak, herri eta inguruetako argazki zahar zein berriak, festa, inauteri eta askotariko antolakuntzaren ingurukoak, tradizioak eta ohiturak, ekimen eta aldarrikapenak, denetik jaso dute ahoz zein idatziz.

Euskalkiaren erabilerari dagokionez, puri-purian dagoen eztabaida dela uste dut eta, nire uste apalean, lan itzela egiten dute tokikoek euskalkien mantentze eta zabaltzean. Herrietako ondare kulturala jasotzen dute eta hemeroteka izugarria sortzen ari dira.

Material hori guztia biltzea eta artxibatzea funtsezkoa dela iruditzen zait eta litekeena da etorkizun hurbilean lan horri ekin behar izatea. Ideia honetatik abiatuta, elkarrizketan *Mailope* aldizkariko arduradun Arantxa Mikeok aipatutako bitxikeria amaitu nahiko nuke: Aldizkariaren 25. urteurrena zela-eta Beteluko herritar batekin solasean ari zela, *Mailope* guztiak gordeak zituela kontatu zion gizonak, “zerogarrenetik gaurdaino, guk ere ez dugu, elkarteak ez du”.

6. Bibliografia

- Amezaga, J. (2009). Talde nortasunak eta komunikabideak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, (72), 41-50 or.
- Amezaga, J.; Arana, E. (2008). Telebistagintzaren digitalizazioa eta euskara. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (68), 37-59 or.
- Arana, E.; Amezaga, J.; Azpillaga, P. (2010). *Euskarazko hedabideak*. Donostia-San Sebastián, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Arantzabal, I. (2008). Tokiko hedabideek etorkizun handia dute. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* (66), 103-114 or.
- Arrieta, M. (2008). Berria, bost urrats etorkizunari begira. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, (68), 139-146 or.
- Asociación para la Investigación de Medios de Comunicación (2018). *Marco General de los Medios en España*. (<https://www.aimc.es/a1mc-c0nt3nt/uploads/2018/02/marco18.pdf>)
- Asociación para la Investigación de Medios de Comunicación (2018). *Audiencia de Internet*. (<https://www.aimc.es/a1mc-c0nt3nt/uploads/2018/06/internet218.pdf>)
- Barandiaran, A (2012). Hedabideen garrantzia hizkuntzen berreskurapenerako. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* (83), 129-134 or.
- Basterretxea Polo, J.I. (2008). Arto gutxitan, kalabaza jaki (Gizarte-komunikazioa, euskaraz eraikitzen). *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (68), 75-83 or.
- Behategia: Euskal Hedabideen Behatokia. (2017) *Euskal Hedabideen Urtekaria*. (<https://es.calameo.com/read/004658080b2f83b152946>)
- Calhoun, C. "Indirect Relationship's and Imagined Communities: Large-Scale Social Integration and the Transformation of Everyday Life". In *Social Theory for a Changing Society*, Bordieu, P. Eta Coleman, J. 95-121. Oxford: Westview Press, 1991.
- CIES (2017). Estudio de la Audiencia de Medios de Comunicación en la C. A. De Euskadi y Navarra. *CISSL*. (<http://www.ciessler.com/audienciamedios.htm>)
- Consejo Audiovisual de Navarra (2010). *Barómetro Audiovisual de Navarra 2010* (<https://es.scribd.com/document/47825342/Barometro-Audiovisual-de-Navarra-2010>)

Díaz Noci, J. (2008). Euskal komunikabideak eta ziberkomunikabideetan euskararen erabilera. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (68), 19-36 or.

Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia-Gaindegia (2017) [Euskal Herriko demografia] (<https://www.gaindegia.eus>)

Estatistikak-Kultura ohiturak, praktikak eta kontsumoa (2008). Donostia: Eusko Ikaskuntza (http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/est_hp/eu_hp_n/adjuntos/NAFARROA.pdf)

Euskarabidea (2017). *Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)*. Iruñea, Nafarroako Gobernua ([http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/Euskararen%20I_%20Plan%20Estrategikoa%20\(2016-2019\)_%20Nafarroako%20Gobernua.pdf](http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/Euskararen%20I_%20Plan%20Estrategikoa%20(2016-2019)_%20Nafarroako%20Gobernua.pdf))

Garabide Elkarte (2010). Hedabideak. *Euskararen berreskuratzea III*. Garabide Elkarte (<http://www.garabide.eus/fitxategiak/dokumentuak/doks/euskeraren-berreskurapena-iii-hedabideak.pdf>)

Irigoien, J.M. (2006). Tokiko telebista Nafarroan eta Ttipi-Ttaparen esperientzia. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* (58) (<http://www.soziolinguistika.eus/node/3179>)

Irizar, M. (2003). Herri aldizkariak: balantzea eta etorkizuneko erronkak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* (48) (<http://www.soziolinguistika.eus/es/node/1146>)

Martinez, Z.; Berrio-Otxoa, K.; Altuna, O.; Jausoro, N. (2017). 2.1. *Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak*. HIZNET Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastián, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Martínez de Luna, I., Usarralde, I. (2004) *Euskal hizkuntza komunitatearen bizindar etnolinguistikoa*. Oñati: Soziolinguistika Klusterra, 2004.

Meso Ayerdi, K. (2008). Euskarazko hedabideak Interneten. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (68), 51-61.

Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurilaritza, Euskararen Erakunde Publikoa (2016) VI. *Inkesta soziolinguistikoa, Nafarroako Foru Komunitatea*. Iruñea, Soziolinguistika klusterra. (<http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/NAFInkesta2016euskaraz.pdf>)

Salces Alcalde, G. (2016) *Euskaldunak Komunikabideen Aurrean: iritzien, ohituren eta jarreraren azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa* (Doktore Tesia). UPV-EHU, Leioa

Sánchez Carrión, J. M. (1981). *El espacio bilingüe*. L.g.: Eusko Ikaskuntza.

Sánchez Carrión, J. M. (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las Lenguas*. Donostia: Sánchez Carrión arg.

Sánchez Carrión, J.M. (1992). Las lenguas vistas desde la historia versus la historia vista desde las lenguas (o el giro copernicano de un nuevo discurso social). In XI Congreso de Estudios Vascos: "Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa" (89-143. or.). Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Sarasua, J. (2013). *Hiztunpolisa Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Iruñea: Pamiela

Tafjel, H. (1984). *Grupos humanos y categorías sociales*. Barcelona: Herder, 1984.

Tokikom (2013). *Euskal hedabideen etxea, tokikoen ikuspegitik*. Durango, Tokikom. (https://tokikom.eus/wp-content/uploads/2013/11/EUSKAL_HEDABIDEEN_ETXEA.pdf)

Torrealdai J.M. (2018). *Asedio al euskera. Más allá del libro negro*. Andoain, Txertoa.

Zabaleta Urkiola, I.; Urrutia Izagirre, S.; Gutiérrez Paz, A.; Xarmando González, N.; Mendizabal Etxabe, A. (2000). *Euskarazko komunikabideak eta kazetaritza: Egoera, ardatzake eta pisu erlatiboa*. Donostia-San Sebastian, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Zalbide, M., Erize, X. (2017). 1.3. *Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastián, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Zarraga, A., Coyos, J.B., Hernández, J.M., Joly, L., Larrea, I., Martínez, L.V., Uranga, B., Bilbao, P. 2010. *Soziolinguistika Eskuliburua*. Donostia: Eusko Jaurlaritza, 2010.

Ziganda, D. (2016). *Euskarazko komunikabideak Nafarroan: kontsumo, eduki eta erabilgarritasunaren gaineko hausnarketa bat*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Zuberogoitia, A. (2009). Asaba zaharren baratzetik mundu arranora. Euskararen komunikazio-esparrua aro globalean. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, (72), 27-39 or.

Zubiri, H., Retortillo, A., Aierdi, X. (2008). Euskal hedabideak Euskal Autonomi Erkidegoan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (68), 85-101 or.